



EUSKO JAURLARITZAREN LANA ESKUALDEETAKO KOMITEAN

2009. URTEKO BALANTZEA



Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoa

| | |
|--|-----------|
| HITZAURREA | 3 |
| LISBOAKO TRATATUA: BOTERE GEHIAGO ESKUALDEETAKO KOMITEARI | 6 |
| OSOKO BILKURAK | 9 |
| - 78. Osoko Bilkura | |
| - 79. Osoko Bilkura | |
| - 80. Osoko Bilkura | |
| - 81. Osoko Bilkura: Lehendakariaren parte-hartze berezia | |
| - 82. Osoko Bilkura | |
| AHOLKULARITZA-LANA | 20 |
| 1- Iritzi-eskaerak jaso dituzten Eusko jaurlaritzaren sailak eta haien jarrera | 20 |
| - Sailak eta landutako gaiak | |
| - Kontsultatuko sailak eta erantzun-maila | |
| - Sailen erantzun-mota | |
| 2- Jarreraren defentsa: Eusko Jaurlaritzaren zuzenketak | 24 |
| - Idatzitako, aurkeztutako eta onartutako zuzenketak | |
| - Onartutako zuzenketen ehunekoak | |
| 3- Beste eskualde batzuek egindako zuzenketen aurkezpen bateratua | 27 |
| 4- Irizpenak prestatzeko beste tresna batzuk | 30 |
| - Lisboako Estrategiari buruzko kontsulta (EB 2020 estrategia) | |
| - Ekonomia Berreskuratzeko Europako Planari buruzko Eskualdeetako Komitearen kontsulta | |
| 5- Subsidiaritatearen azterketa | 32 |
| - Subsidiaritateari buruzko Urteko Biltzarra | |
| - Biohondakinen kudeaketari buruzko kontsulta | |
| - EBren barruko osasun-desberdintasunei buruzko kontsulta | |
| - Edateko uren kalitateari buruzko kontsulta | |
| BESTE JARDUERA BATZUK | 37 |
| 6- Lehendakariaren bisita Bruselara | 37 |
| 7- Eskualdeen eta Hirien Europako Goi Bilera | 39 |
| 8- “Autogintzaren krisia” eskualde-arteko lantaldea | 40 |

| | |
|---|---------------|
| 9- Hazkunderako eta Enplegurako IV Lurralde Elkarrizketa | 42 |
| 10- Europako Talentu Gazteen Lehiaketa | 43 |
| 11- Talde politikoak eta Espainiako delegazioa | 43 |
| 12- OPEN DAYS jardunaldiak | 44 |
| KONKLUSIOAK | 46 |
| HITZAURREA | |

Eskualdeetako Komitea (EK) da Europar Batasuneko eskualdeak eta udalerriak ordezkatzeko organo ofiziala. Maastrichteko Tratatuen ondorioz sortu zen 1992an, eta 1994. urtean ekin zion ibilbideari. Harrezkero, gero eta kontsulta-botere eta eragin handiagoa du, bai Erkidegoko legediari buruzko kontsultak jasotzeko, bai Europako politikako gai-zerrendako arazo garrantzitsuenak ebazten laguntzeko.

Batasuneko kide diren 27 herrialdeetako eskualdeetako 344 presidentek, alkatek, zinegotzik, kontseilarik eta abarrek eratutakoa da, eta haren eginbeharra Bruselara joatea da, haien bidez ordezkaturik dauden herritarren ikuspegiak eta interesak defendatzera. Horrenbestez, gaur egun, Batzordeak edo Kontseiluak duen betebeharra hau da: Eskualdeetako Komiteak zenbait jarduera-eremuri buruz duen iritzia biltzea, horiek eskualdeetako eta tokiko eskumenetan eragina baitute edo ondorioak baitakartzate.

Lisboako Tratatua indarrean sartu zenetik, hauek dira derrigorrezko kontsulta-eremuak: garraioa, enplegua, gizarte-politika, Europako Gizarte Funtza, hezkuntza, lanbide-heziketa, gazteria eta kirola, kultura, osasun publikoa, Europa barneko sareak, ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koheretza, eta ingurumena eta energia. Hartara, EBko jarduera gehienak hartzen dira aintzat. Derrigorrezko kontsulta horiez gain, Kontseiluak, Batzordeak, eta Europako Parlamentuak kontsulta diezaiokete Komiteari, hala nahi izanez gero. Eskualdeetako Komiteak, halaber, iritzia eman dezake bere ekimenez, egoki irizten badio.

Iritzi horiek irizpenen bidez ematen dira, eta, ondoren, Batzordera, Kontseilura eta Europako Parlamentura bidaltzen dira. Irizpenak emateaz gain, Eskualdeetako Komiteak txostenak egin eta ebazpenak ematen ditu. Bitarteko horiek guztiek hau dute helburu: Erkidegoko legediak udalerrietan eta eskualdeetan duten eragina adieraztea, EBko gai-zerrendan Eskualdeetako Komiteak gaiak eransteko aukera izatea, eta unean uneko arazo politikoei buruzko iritzia ezagutaraztea.

Denboraren joanean hainbat tratatu hitzartu dira, eta horien bidez Eskualdeetako Komiteari gero eta garrantzi handiagoa eman zaio, hain zuzen arrazoi hauengatik: batetik, eskualdeek eta udalerriek dutelako ardura Erkidegoko legediaren hiru laurden

aplikatzeko; eta, bestetik, ezinbestekoa delako herritarrak Erkidegoko proiektuan inplikatzeari, hurbilen dituzten ordezkarien bidez.

Eskualdeetako Komiteko kide guztiak beren eskualdean bizi dira, eta bertan lan egiten dute; hau da, dagozkien ardurak beren lurraldean betetzen dituzte, eskualdeko presidente izan, zein alkate izan. Hori hala izanik, ordezkatzeko dituzten herritarren kezkek zein diren jakiten jarrai dezakete. Horrenbestez, Komiteko kideek bi egiteko dituzte. Bata, herritarren interes zuzenak defendatzea Bruselara joaten direnean; izan ere, han dauden, parte hartzen dute Erkidegoko erabakiak hartzen. Eta, bestea, herritarrak informatzea EBn gertatzen den guztiaz.

Euskadik Komitean duen kide titularra lehendakaria da —Juan Jose IBARRETXE 2009ko maiatza bitartean, eta, 2009ko irailetik aurrera, Patxi LÓPEZ, orduan izendatu baitzuten Komiteko kide—. Ordezko kidea, 2009ko maiatza arte, Iñaki AGUIRRE izan da, eta Guillermo ECHENIQUE ondoren, biak ere Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak.

Eusko Jaurlaritzak Eskualdeetako Komitean jardun ahal izateko, ezinbestez egin behar du lan alde aurretik. Hau da, batez ere Jaurlaritzako sailen iritzia eta Europako legeak aldatzeko proposamen zehatzak bildu behar ditu, ondoren Bruselan defendatzeko.


Hau da Eusko Jaurlaritzak egiten duen barne-prozedura¹:

- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik (Lehendakaritza) irizpenak bidaltzea Jaurlaritzaren gainerako sailera, beren organismo autonomoetara edo EUDELera.
- Sailen iritzia edo jarrera Komitearen irizpenei buruz.
- Zuzenketa zehatzak aurkeztea; horretarako, beste eskualdeen babesa jaso behar da.
- Lobby-a eta zuzenketen defentsa Bruselan.

Europako araudiari zuzenketak aurkezteaz gain —horixe da parte hartzeko modu nagusia eta Euskadiren jarrera Erkidegoko erakundeetan ezagutarazteko bide nagusia—, Euskadik beste jarduerak garrantzitsu batzuk ere egin ditu Eskualdeetako Komitean. Eta txosten honek ematen dizu lan horren guztiaren berri.

¹ Ikusi grafikoa hurrengo orrialdean.

Martxoaren 1eko hauteskundeen ondoren norabide politikoa aldatu egin zenez eta Gobernu berria eratzeko trantsizio politikoa beharrezkoa izan zenez, Euskadiren jarduera politikoa Komitean moteldu egin zen ekitaldiaren erdian, eta berriz ere lanari ekin zion urrian. Horrenbestez, balantze honetan parte-hartzeari buruz adierazten diren datuak aurreko urteetakoak baino txikiagoak dira.



LISBOAKO TRATATUA: BOTERE GEHIAGO ESKUALDEETAKO KOMITEARI

Europar Batasunaren Tratatuak eta, gerora, 2009ko abenduaren 1ean, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak indarrean sartzeak eragin zuen eskualde- eta toki-eremuek indar handiagoa izatea Batasunean. Hori hala izan dela agerian uzten dute Eskualdeetako Komitearen erakunde-jardueran aldaketa garrantzitsuek ekarri dituzten ondorioek.

Toki- eta eskualde-autonomia lehendabizikoz hartu dira aintzat Erkidegoko Tratatu batean. Izan ere, Lisboako Tratatuak dio: "Europar Batasunak estatu kideak tratatuaren aurrean berdinak izatea errespetatuko du, bai eta estatu horien funtsezko egitura politikoari eta konstituzio-egiturari lotuta dagoen nazio-nortasuna ere, toki- eta eskualde-autonomiari dagokionetan barne". Eskualdeetako Komitea denez EBko eskualdeak eta udalerrak ordezkatzen dituen organo ofiziala, oso balorazio positiboa egin du Europako Tratatu batek eskualde- eta toki-autonomiarekiko errespetua aintzat hartzea.

Halaber, Lisboako Tratatuak (26. protokoloa) berretsi egiten du tokian tokiko eta eskualdeetako erakundeek zeregin garrantzitsua dutela, interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak emateko, agintzeko eta antolatzeko. Eskualdeetako Komitearen ustez, garrantzi politiko handia duen esparrua da, eta subsidiarotasunaren gaiarekin lotzea ezinbestekoa, eskualdeen eta toki-erakundeen eskumenak babesteko.

Horrez gain, Eskualdeetako Komiteak poz handia hartu du Lisboako Tratatuak kultura- eta hizkuntza-aniztasuna errespetatzea EBren helburuen artean jaso duelako (3. artikuluan, 3. paragrafoaren 3. lerrokada), eta konstituzio-ordenamendua duten eskualdeetako hizkuntzei buruzko erreferentzia egiten duelako. Hizkuntza horietako bat, ezagun den moduan, euskara da. Horren haritik, hona hemen Lisboako Tratatuak berak adierazitakoa: "Tratatu hau estatu kideek erabakitako beste hizkuntza batzuetara ere itzuli ahal zango da, baldin eta estatu horietako konstituzio-ordenamendua arabera maila ofiziala badute lurralde osoan edo zati batean". Ildo horretan, Gobernuen Arteko Biltzarrak berretsi egin zuen, 16. adierazpenean, Europar Batasunak Europako kultur aniztasunarekiko hartu duen konpromisoa, bai eta Batasuneko hizkuntzei eta beste batzuei arreta berezia ematen jarraitzeko konpromisoa ere.

Lisboako Tratatuak Eskualdeetako Komiteari emandako eskumen berriei eta berrituei bereziki erreparatuta, kategoria hauetan sailkatu ditugu eskumenok:

1.- Eskualdeetako Komiteari derrigorrez kontsultatu beharreko gai-esparruen eremua handitzea

Eskualdeetako Komiteari derrigorrez kontsultatu beharreko gaien artean, 10 titulu jasotzen zituen Nizako Tratatuak. Lisboako Tratatuak beste titulu bat erantsi zuen: energia. Horrez gain, lehendik zeuden hamar titulu horietatik, bost titulutan kontsultar emua zabaldu zuen. Hortaz, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu berriak derrigorrez kontsultatu beharreko kasu hauek ezartzen ditu:

- Garraioa (91. eta 100. artikulua), enplegua (148. eta 149. artikulua), gizarte-politika (153. artikulua), Europako Gizarte Funtza (164. artikulua), hezkuntza, lanbide-heziketa, gazteria eta kirola (165. eta 166. artikulua), kultura (167. artikulua), osasun publikoa (168. artikulua), Europa barruko sareak (172. artikulua), ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koheretza (175., 177. eta 178. artikulua), ingurumena (192. artikulua) eta energia (194. artikulua).

2.- Europako Parlamentuak ere Eskualdeetako Komiteari kontsulta egiteko aukera

Lisboako Tratatuak ezarritakoaren arabera, Europako Parlamentuak, lehendik Kontseiluak eta Batzordeak egiten duten moduan, kontsulta egingo diote Eskualdeetako Komiteari, Tratatuetan aurreikusitako kasuetan, baita Europako Parlamentuak egoki irizten dion beste edozein kasutan ere, bereziki, mugaz harandiko lankidetzari dagozkionetan.

3.- Subsidiarioratasunerako beste planteamendu bat, lurralde-koheretza eta inpaktu-azterketa

Subsidiarioratasun-printzipioaren xede da, Erkidegoaren eskumen eksklusiboak ez diren eremuetan, erabakiak herritarrengandik ahalik eta hurbilen hartuko direla bermatzea. Lisboako Tratatuak, besteak beste:

- lehendabizikoz eranstean dituzten toki- eta eskualde-eremuak subsidiarioratasun-printzipioari buruzko definizioan (EBTren 5. artikulua eta 2. protokoloa).
- alerta azkarreko mekanismo bat sortu du, eta, bertan, estatuetak parlamentuek parte hartzeaz gain, egoki bada, legegintzako eskumenak dituzten eskualdeek ere parte har dezakete (1. protokoloa eta 2. protokoloaren 7. artikulua).
- Eskualdeetako Komiteari eskubidea ematen dio errekurtsioa jartzeko Europar Batasuneko Justizia Auzitegian, subsidiarioratasun-printzipioa hautsi dela uste badu (EBFTko 263. artikulua eta 2. protokoloaren 8. artikulua).

Horrenbestez, subsidiariotasun-printzipioari dagokionez, ezinbestez bermatu behar da Erkidegoaren ekintza justifikatuta dagoela, estatu kideetan dituzten aukerak kontuan hartuta, baina baita eskualdeetan edo toki-eremuetan dituzten aukerak ere hartuta kontuan.

Eskualdetako Komitearen barne-araudi berriak agintzen duenari jarraituz, Komitearen irizpenetan berriaz egingo da subsidiariotasun- eta heinekotasun-printzipioen aplikazioari buruzko erreferentzia (51. araua).

Lehendabizikoz, EBk berriaz adierazten du “lurralde-kohesioa” Batasunaren helburuetako bat dela, ekonomia- eta gizarte-kohesioaz gain. Printzipio horizontala da, eta hori lortzeko nahitaez baloratu eta kontuan izan behar da Europako politika guztiek lurraldean duten eragina. Batasunak lurraldetasuna berriaz aipatu izana aurrerapauso handia izan da, Eskualdeetako Komiteak ahalegin handia egin baitu kontzeptu hori Erkidegoko politika guztiei eranstean.

Horrexegatik, Eskualdeetako Komiteak zeregin erabakigarria du eragin- edo inpaktu-azterketen bidez egiten dituzten ekarpenekin. Lisboako Tratatuak berak (2. artikulua eta 2. protokoloa) erantsi zuen eskualde- eta toki-erakundeen parte-hartzeko aukera prozesu erabakigarriaren prestatze-fasean, hau da, eragin- edo inpaktu-azterketetan. Eskualdeetako Komitearen eta Europako Batzordearen arteko Lankidetzaren Hitzarmenari (2007) jarraiki, bi erakundeek elkarrekin lan egiten jarraituko dute EBren ekimenen eraginari buruzko azterketak egiten, legegintzakoak zein legegintzakoak ez direnenak.

4.- Prerrogatiben defentsa

Lisboako Tratatuaren 263. artikulua Eskualdeetako Komiteari eskubidea ematen dio Europar Batasuneko Justizia Auzitegian errekurtsioa jartzeko, bere prerrogatibak babesteko. Eskubide horrek berebiziko garrantzia du Eskualdeetako Komitearen jarrera politikoen ikuspuntutik, eta Europako Parlamentuari (EP) buruzko jurisprudentzia kontuan hartuta interpretatu behar da eskubide hori. Izan ere, Europako Parlamentuak errekurtsioak jar ditzake Auzitegian bere prerrogatibak babesteko, eta errekurtsio horiek, halaber, bete egin behar dituzte Tratatuak deuseztatze-errekurtsioak jartzeko xedatzen dituzten arauak.

Ikuspuntu hori kontuan izanik eta Auzitegiaren jurisprudentziari jarraituz, EBko erakunde batek ez badu kontsulta egiten edo hasierako proposamenetik nabarmen aldendu eta ez badu kontsulta berririk egiten, egintza bat deusezta daiteke, prerrogatibak urratzeagatik.

5.- Eskualdeetako Komitearen agintaldiaren iraupena 4 urtetik 5 urtera luzatzea

Komitearen agintaldiaren iraupena Europako beste erakunde batzuek dutenera egokitzeko, bereziki, Europako Parlamentuarenera eta Batzordearenera, Eskualdeetako Komiteko kideen agintaldiaren iraupena 4 urtetik 5 urtera luzatuko da. Hortaz, Komiteko presidentziaren agintaldiaren iraupena eta goi-mailako beste funtzio batzuen 2 urtetik 2 urte eta erdira luzatu da.

OSOKO BILKURAK

78. Osoko Bilkuraren laburpena (2009ko otsailaren 11-12)

Gai-zerrenda zabala zutela ekin zioten urte berriari EBko lider politikoek. EBko eskualde eta hiriek beren ikuspegiak eta eskaera zehatzak adierazi zizkieten Erkidegoko erakundeei. Hain zuzen, finantza- eta ekonomia-krisiaren ondorioz gero eta ugariagoak diren arazoei aurre egiteko modua izan zuten hizpide. Horrez gain, gai hauei landu zituzten: klima-aldaketaren aurkako borroka, migrazioaren fenomenoak eragiten dituen erronkak, arreta sanitarioari buruzko politika hobea egitea Europan eta nekazaritzako gure produktuen kalitatea babesteko beharra.

Osoko bilkuran Europako energia-politikaren arduradun PIEBALGS komisarioa aritu zen hizketan, joan den urtarrilean Europan izandako gasaren krisiak eragindako ondorioak azaltzeko. Horrez gain, adierazi zuen eragile politiko guztien indarrak batu behar direla, Europa egungoak baino energia berriztagarriagoz horni dadin.

Europako Batzordeko presidenteorde eta Europako komunikazio-politikaren arduradun Margot WALLSTRÖM ere han izan zen. Eskualdeetako Komiteko kideekin batera parte hartu zuen zenbait gai buruzko ikuspegiak elkarri jakinarazteko. Besteak beste, Europako Parlamenturako hauteskundeei buruz herritarrak hobeto informatzeko moduari buruzko ikuspegiak eta hauteskunde horietan jende gehiagok parte har dezan lortzeko moduari buruzko iritziak trukatu zituzten.

Eskualde-politikako ministro txekiar Cyril SVOBODAK EBn Txekiar Errepublikak beteko duen presidentziaren programa aurkeztu zuen, eta, bertan, hurrengo hilabeteetarako Erkidegoko politikako gai-zerrenda osatu zen. Horrez gain, eztabaida-gai izan ziren lurralde-koheretza eta eskualdeek eta hiriek Erkidegoko politikak aplikatzeko duten zeregina.

Eusko Jaurlaritzak 16 zuzenketa aurkeztu zizkion Europako araudi berriari, hain zuzen, gai hauekin: mugaz gaindiko osasun-laguntza, kalitate oneko nekazaritza-produktuak, etiketatze ekologikoa, immigrazioa eta mugikortasuna, eta teknologia berriei buruzkoak ere bai. Horiek guztiak onartu zituen osoko bilkurak.

Hona hemen zuzenketa horien ideia nagusiak:

- Osasun-sistemak antolatzeko eskualdeek duten eskumena egiaztatzea.
- Jatorri-deitura duten Europako eskualdeetako produktuentzako “labela” ezartzeko premia agerian uztea.
- Eskatzea EBri artisau-produkzioaren eta granjako produkzioaren kontzeptuak definitzea, kontsumitzaileak babeste aldera.
- Ezagutzera ematea eta azaltzea kalitateari buruzko Europako bereizgarriak eta horiek bete behar dituzten arauak.
- Bereiztea ardoak eta baia eta frutekin egindako edariak.
- Produktua zein herrialdek ekoiztu duen ezinbestez jarri beharreko etiketa bakar-bakarrak jartzea kontsumitzailea zalantzan jar dezaketen produktuei.
- Estatuetakoa eta eskualdeetako sistema ekologikoei EMAS bereizgarria lor dezaten laguntzea, baldin eta sistema europar horrek ezartzen dituen irizpideak zorrotz betetzen badituzte betiere.
- Enpresei administrazio-kargak aritzen saiatzea, ahal den neurrian, EMAS sistema ezartzerakoan.
- Etiketa ekologiko europarra lortzeko beharrezkoak diren irizpideak betetzen dituzten produktu eta zerbitzu gehiago jartzea kontsumitzaileen esku, ekodiseinua sustatzeko programak garatuta.
- Nabarmentzea hezkuntzak duen garrantzia immigranteak integra daitezen, eta azpimarratzea bizilekuko Estatuko irakas-hizkuntza ofizialak jakitea garrantzitsua dela hezkuntza-sistemaren alde onez baliatu ahal izateko.
- Banda zabaleko zerbitzuak eranstea egun dauden zerbitzu unibertsalen artean, eta, halaber, zehaztea gutxieneko abiadura, finantzatzeko moduak —tokiko- eta eskualdeetako agintariei ez dagokiena—, bai eta eragileek hori ez betetzea dakartzan ondorioak ere.
- EBri eskatzea kontuan hartu beharreko irizpideak defini ditzan, horien bidez zerbitzua baliabide publikoekin edo baliabide pribatuekin finantzatuko diren eremuak bereizteko.

Euskadik zuzenketa horiek bidaltzen dituen bezala, Eusko Jaurlaritzak, guztira, 105 zuzenketa jaso zituen Europako eta Espainiako beste eskualdeetatik, elkarrekin aurkeztu ahal izateko babesa bilatzen zutenak. Horiek guztiak aztertu ziren Eusko Jaurlaritzako sailen laguntza izanik, eta, horietatik, 54ri eman zitzaion babesa.

Osoko Bilkura horretan bertan, Eskualdeetako Komitearen baitan, Europako eskualdeen Lantaldea eratu zen lehendabizikoz, autogintzaren krisiari aurre egiteko.

Osoko Bilkurarekin batera, Hazkunderako eta Enplegurako IV. Lurralde Elkarrizketa egin zen. Elkarrizketa hori Eskualdeetako Komiteak antolatu zuen, Europako Batzordearen eta Txekiar Errepublikak Europako Batasunean zuen presidentziaren

lankidetzarekin. Hona hemen bertaratuak Txekiar Errepublikako Europako Gaietarako Estatu Idazkari Marek MORA jauna, Batzordeko presidenteorde eta Garraio-gaien arduradun TAJANI komisarioa, bai eta Ekonomia eta Gizarte Komiteko presidente Mario SEPI jauna.

79. Osoko Bilkuraren laburpena (2009ko apirilaren 21-22)

Apirileko Osoko Bilkuran, Eskualdeetako Komitearen 15. urteurrenaren ospakizuna izan zen gai nagusia. Izan ere, 1994ko martxoan egin zuten lehendabiziko bileran, Maastrichteko Tratatuaren ondorioz sortu eta gero. Ospakizun hori dela eta, Eskualdeetako Komiteak “Eginkizunen Adierazpena” aurkeztu zuen. Bertan biltzen dira datozen 15 urteetarako beren balioak eta asmoak.

Osoko Bilkura horretan, EBko Ekialdeko Elkartearen ekimenari buruzko jarrera erakutsi zuten Komiteko kideek, Europako Kontseiluaren bileran aurkezte aldera. Horrez gain, finantza-krisiak gizartean duen eragina izan zuten mintzagai: herritarrak babesteko, eta, aldi berean, ekonomia bultzatzeko bideak aztertu nahi zituzten, eta bide horiek aurkeztu maiatzaren 7an Pragan, enpleguaren gaia hizpide hartuta, egingo zen ministroen arteko bileran. Hona hemen aztertu ziren beste gai batzuk: energia, garraioak, lankidetzak kultura-, zientzia- eta teknika-alorrean, kontsumitzaileen eskubideak eta pazienteen segurtasuna.

Eusko Jaurlaritzak zuzenketa bakarra aurkeztu zuen Osoko Bilkura horretan. Kontuan izan behar da Osoko Bilkura bat prestatzeko lanak hilabete eta erdi lehenago hasten direla, eta martxoaren 1eko hauteskundeak tartean izan zirela, eta norabide politikoa aldatzea eragin zuela, gobernu sozialista eratu baitzen. Horren guztiaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzako sailek jakinarazi ziguten ezin zutela Europako testuei buruzko jarrera adierazi, Europako araudiari zuzenketak aurkeztea, azken batean, “orrazketak” egitea baita. Horrenbestez, lan-merkatuaren eta turismoaren alorrean eskualdeek dituzten premien arteko korrelazioari buruzko irizpenari egin zitzaion zuzenketa. Eusko Jaurlaritzaren ustez, lurraldearen turismo-alorreko antolamendua ez da Estatuko planen bidez planifikatu behar, baizik eta eskualdez eskualde. Izan ere, turismoa ez da maila berean garatu turismoa bultzatzeko ekintzetarako gutxieneko unitateetan, esaterako, eskualdeetan.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak 63 zuzenketa jaso zituen beste eskualde batzuetatik, gure babesa lortzeko eta elkarrekin aurkezteko, Euskadiko ordezkariaren bitartez. Guztira, 20 zuzenketari bakarrik eman zitzaion babesa, Eusko Jaurlaritzako sailek emandako aholkuei jarraiki.

Sormenaren eta Berrikuntzaren urte europarraren (2009) esparruan, Eskualdeetako Komiteak eta Europako Batzordeak "eskualde eta hiri sortzaileak" izeneko gaiari buruzko foroa antolatu zuten, Osoko Bilkurarekin batera egin zena. Foro europarraren helburua da Europako eskualde eta hirien sormena erakustea eta sormenak eta berrikuntzak garapen ekonomikoa bultzatzeko duten garrantzia indartzea.

Foro hori dela eta, Europar Batasuneko 27 herrialdeetako 267 hautagaien artetik aukeratu ziren talentu sortzailea duten 100 gazte. Horien artean baziren Euskadikoak ere: Josean MARTÍNEZ ALIJA —Guggenheim museoko jatetxeko sukaldeburua— eta Manu EGAÑA —antolaketan eta lidergoan aditua—; horiek ere osatu zuten talde txikia. Lan-arloko lorpenetan eta ibilbide profesionalean erakutsitako talentua eta sormena izan dira gazte horiek hautatu izanaren arrazoia. Izan ere, espiritu ekintzailea eta sormena bultzatu dute, eta, halaber, tokiko garapena ere bai.

Osoko Bilkurarekin batera, Eusko Jaurlaritzak parte hartu zuen "Autogintzaren krisia" taldeartean, Britainia eskualdea haren buru zela. Helburua ahaleginak batzea izan zen, sektoreko krisiari irtenbideak emateko eta eskualdeen egitekoa eremu europarrean sustatzeko. Horretarako, krisiak lurraldez lurralde nola eragiten duen aztertu eta diagnostiko bat egin zen, ekintza-plana ezarri zen eta ebazpen politiko bat egiteko lanari ekin zitzaion. Bilerara Europar Batzordeko eta Europako Inbertsio Bankuko arduradunak bertaratu ziren.

80. Osoko Bilkuraren laburpena (2009ko ekainaren 17-18)

Maila anitzeko gobernantzari buruzko Liburu Zuria izenekoaren onarpena izan zen Osoko Bilkuran landu zen gai nagusia. Asmoa izan zen Europar Batasunaren, estatuen eta lurraldeen artean eskumenak banatzeko moduari buruzko hausnarketa egitea, bai eta lurralde-erakundeak Erkidegoko politikak formulatzen eta horiek aplikatzen hobeto integratzeko moduari buruzko hausnarketa ere.

Liburu Zuriak adierazten du oso garrantzitsua dela Europako toki- eta eskualde-erakundeek duten jarrera, haien ekonomia- eta finantza-egoera, eta haien zeregin politiko estatutikoa. Era berean, agerian uzten du herritarren laguntza izan dela gobernantza gardenagoa izateko eta guztion artean konpartitutako gobernantza izateko.

Osoko bilkura horretan onartu zuen Eskualdeetako Komiteak ebazpen politiko, "Europaren erantzuna autogintzaren krisiari" izeneko. Ebazpen horrek bereziki nabarmendu zuen sektoreko krisiak duen larritasun osoa aitortu behar dela, eta, bereziki, lurraldeetan eta enpresa txiki eta ertainetan izango duen eragina. Horrez gain, azpimarratu zuen oso garrantzitsua dela European ekintzak abiaraztea, enpleguei

eusteko, eta krisi horrek langileentzat eta krisiaren eraginpeko enplegu-eremuentzat izango dituen gizarte-ondorioak arintzeko.

Osoko Bilkura horretan eztabaidatu ziren beste gai garrantzitsuak izan ziren: toki-eremuen eta eskualdeen arteko harremanak EBren kanpo-harremanetarako politikan, eta tokiko lankidetzaren hirugarren herrialdeekiko. Garapenerako eta Laguntza Humanitarioko Europako komisario Louis MICHELe hitz egin zuen Eskualdeetako Komitearen aurrean, garapenerako laguntzan inberti dadin eskatzeko. Agerian utzi zuen egoera ekonomiko larria bizi dugun garai honetan, zenbait estatu kidek garapenerako laguntza murriztea erabaki dezaketelako arriskua dagoela, eta, hortaz, lurraldeetako erakundeei ahalegin berezia eskatu zien, halakorik gerta ez dadin.

Tokiko eta eskualdeetako ordezkariak EBri eskatu zioten herrialde atxikigaietara ateak ez ixteko eta horri buruzko erreforma gehiago eskatu zituzten. Gogorarazi zuten ezinbestekoa dela estatuz azpiko eragileek atxikipen-prozesuan egiten duten lana aitortzea, berebiziko garrantzia baitu, eta, horregatik, haien trebetasunak indartu behar direla.

Udalgintza eta Finantza Merkatuen gaietarako Suediako ministro ODELL jaunak ere parte hartu zuen, eta Suediaren presidentziaren lehentasunak azaldu zizkien tokiko eta eskualdeetako ordezkari politikoei.

Kopenhagen izandako klima-aldaketari buruzko konferentzia ere gai garrantzitsua izan zen Osoko Bilkuran. Hain zuzen, gaiarekin zerikusia duten bi irizpen ezarri ziren. Bata, biodibertsitatearen galera gelarazteko moduari buruzkoa; arazo larri horri irtenbidea emateko asmo handiko ikuspegia, baina, aldi berean, errealista proposatu zen. Eta, bestea, EBn bioerregaiak kudeatzeko moduari buruzkoa; modurik onena produkzioa gutxitzea dela iradoki zen, eta eskualdeetako eta tokiko erakundeei askatasuna eman behar zaiela horiek kudeatzeko modua erabaki dezaten.

Nabarmentzeko modukoak dira, halaber, honako hauei buruzko irizpenak: itsasoari eta kostari buruzko irizpen-multzoa, Erkidegoan arrantza kontrolatzeko dagoen erregimena, diskriminaziorik ezari eta aukera berdintasunari buruzko irizpena, eta pertsonenganako tratu berdintasunaren printzipioaren aplikazioa.

Osoko Bilkura horretan Euskadik ez zuen parte-hartze politikorik izan, ordezkari bat Eskualdeetako Komiteko kide izendatzeko ezarritako dagoen prozedurak 2 hilabete inguruko denbora-tartea eskatzen baitu, eta Patxi López maiatzaren hasieran izendatu zuten lehendakari. Horrexegatik ezin izan ziren zuzenketak aurkeztu Euskadiren izenean, ezta beste eskualde batzuetako zuzenketei babesari eman ere.

Eskualdeetako Komitearen Osoko Bilkura horrekin batera, “Autogintzaren krisia” taldearteak bi mintegi antolatu zituen automozioaren sektoreko krisiarekin lotuta: bata politikaren alorrekoa eta bestea teknikaren alorrekoa. Bigarren mintegian, teknikoan, Euskadiko autogintza klusterraren (ACICAE) ordezkari Gonzalo GARRIDO jaunak autogintzaren lehiakortasuna gure lurraldeetan bultzatzeko moduari buruzko hitzaldia eman zuen. Horrez gain, klusterrak eta Eusko Jaurlaritzak berak ezarritako neurriak eman zituen ezagutzera, bai eta Europan ezarri beharko liratekeen neurri berriak ere.

81. Osoko Bilkuraren laburpena (2009ko urriak 5-7)

Nabarmendu behar da osoko bilkura egin zen garaian, Open Days jardunaldiak egin zirela (“Europako eskualde eta hirien astea” ere esaten zaie jardunaldi horiei), eta, zehazki, Eskualdeetako Komitearen osoko bilkura horri buruz adierazi behar da Europar Batasunaren egungo egoera instituzional eta politikoaren isla izan zela. Egoera horren isla izan zen, batetik, Europako erakundeetako ordezkari gorenak parte hartu zutelako bertan: Europako Batzordeko presidente aukeratu berria, José Manuel BARROSO jauna; Europako Parlamentuko presidentea, Jerzy BUZEK jauna; eta Suediako lehen ministro-ordea, Maud OLOFSON andrea. Eta, bestetik, bilkuraren gai nagusiak klima aldaketaren ondorioen aurkako borroka eta Kopenhageko goi-bileraren prestaketa izan zirelako.

Patxi LÓPEZ lehendakariak osoko bilkuran parte hartu zuen, “Open Days” edo Europako Eskualde eta Hirien Astea inauguratzeko. Jardunaldi horiek urtero egiten dira Belgikako hiriburuan, eta Erkidegoko erakunde guztiek laguntzen dute haiek antolatzen; izan ere, eskualdeei eragiten dieten politikei buruzko esperientziak trukatzeko ekitaldi handiena dira Open Days jardunaldiak.

Munduko krisiaren soluzio-bidean eskualdeek eta udalerriek egin dezaketen ekarpenari buruzko debate-saio batean eman zen Lehendakariaren parte hartzea. Saio horretan parte hartu zuten, besteak beste, José Manuel BARROSO presidenteak, Suediako lehen ministro-ordea Maud OLOFSON andreak, eskualde-politikako komisario Pawel SAMECKI jaunak, Eskualdeetako Komiteko presidente Luc VAN DEN BRANDE jaunak, Europako Parlamentuko eskualde-politikako batzordeko presidente Danuta HÜBNER andreak, eta DRESDE hiri alemaniarreko Helma OROSZ andreak. Jacki DAVIS, Europako Politika Zentroko ordezkaria, izan zen moderatzailea.

Osoko bilkura hori erabakigarria izan zen, batik bat, 2010ean egin zen Kopenhageko goi-bilera prestatzeko. Europako Batzordearekin batera “Alkateen arteko hitzarmena” izenpetzeko konpromisoa hartu ondoren (Europako 700 hiri inguruk izenpetu zuten iazko udaberrian), helburu horiekiko konpromisoa adierazi zuen Eskualdeetako Komiteak, eta, konpromiso horren harian, ingurumenaren aldeko eguna izendatu zuen

urriaren 7a. Egun horren harian, Ameriketako Estatu Batuetako Alkateen Konferentziako presidenteorde Elizabeth Kautz andrea Bruselara joan zen, Eskualdeetako Komiteko kideekin aztertzeko nola egin daitekeen lan komun bat klima-aldaketaren aurka borrokatzeko.

Kopenhageko goi-bileran parte hartu zuen Eskualdeetako Komiteak, bermatzeko goimailako ordezkari politikoei behar bezala hartuko zutelako kontuan toki-erakundeak eta eskualdeak egin dezaketen lan eraginkorrak klima-aldaketaren ondorioen aurkako borrokan.

Europako Parlamentuko presidente Jerzy BUZEK poloniarra Eskualdeetako Komitean parte hartu zuen gaurkotasan handiko gaiak aurkezteko, eta, horien artean, bereziki azpimarratzekoak iruditzen zaizkion bi hauek: kohesio-politika eta klima-aldaketa. Horrez gain, nabarmendu zuen Eskualdeetako Komitearen egitekoa dela subsidiarotasun-printzipioari eustea EBren lanetan, haren ustez printzipio horrek berebiziko garrantzia baitu tokiko komunitateen ongizatea bermatzeko.

Eusko Jaurlaritzak 6 zuzenketa aurkeztu zituen, gai hauen inguruan: botikei buruzko arau-multzoa, genero-indarkeria prebenitzeko neurriak, eta Europaz gaindiko garraio-sarearen berrikuspenari buruzko Liburu Berdea.

Idea nagusi hauek aldarrikatu ziren:

- oro har jendeari edo partikularrei banatutako materialaren banaketa debekatzea, baldin eta botiken erabilera-orrian edo etiketan adierazitako datuez besteko informazioa badakarte, halakorik gertatzen bada promozioa egingo baita, informazioa eman beharrean.

-Ingurumen-arriskuak eta osasun-arriskuak bereizteko lana egitea, 2004/27/EE zuzentarauak plazaratutako testuak adierazitako moduan, botiken onura-arrisku kontzeptu tradizionalari eusteko.

-berriazko arreta-neurrien onuradunen artean sartzea kolektibo hau: “gizarte-arazo konplexuen ondorioz premia bereziak dituzten emakumeak”, eta, horien artean, buru-osasuneko arazoak dituzten emakumeak eta toxikomaniak zein droga-mendekotasunak dituztenak.

-esapide neutroak erabiltzea, hizkuntzaren erabilera sexista murrizteko

-Europaz gaindiko garraio-sareari dagokionez, jarraitu beharreko ereduaren artetik kentzea “Farmed ardatzaren” esperientzia, hari eutsiz gero, konparaziozko bidegabekeriak gerta baitaitezke garraio-sareko ardatzen artean.

Osoko bilkuran parte hartzeaz gain, hainbat bilera egin zituen Lehendakariak; izan ere, Europako Batzordeko presidente Jose Manuel BARROSO jaunarekin bildu zen, EBko Ekonomia eta Moneta Gaietarako komisario Joaquin ALMUNIA jaunarekin, eta Bruselan egoitza duten enpresa aukeratu batzuekin, zuzenean jakiteko zer kezka dituzten Europar gaiei buruz. Halaber, bilera horiek egin ondoren, Bruselan finkatutako hainbat euskaldunekin bildu zen; besteak beste, Europako Parlamentuko zenbait kiderekin eta beste pertsonalitate batzuekin.

Osoko bilkura egin zen garaian, Open Days izeneko jardunaldiak egin ziren. Urtero antolatzen dira jardunaldi horiek, eskualdeek Europako politiketan duten partaidetza bultzatzeko eta haien ekimenak bistarazteko. Aurten 200 mintegi inguru antolatu dira eta 5.000 pertsona inguruk parte hartu dute. Bosgarren urtea da, jarraian, Euskadik jardunaldi horietan parte hartzen duela. Aurten, eskualdeek munduko erronkei eman diezaieketen erantzuna izan da jardunaldietan landu den gaia.

Eusko Jaurlaritzak zenbait konferentzia antolatu eta, beste batzuekin batera, gidatu ditu, berrikuntzaren eta sorkuntzaren gaiaren inguruan. Konferentzia horietan, Euskadiren ordezkari izan ziren LM ULLIBARRI jauna, Innobasque agentziako gizarte-berrikuntzako zuzendaria, eta Josu OCARIZ jauna, SPRI agentziako berrikuntza-zuzendaria. Biek ere Euskadi berrikuntzaren eta sorkuntzaren alorrean egiten ari den lana azaldu zuten.

Autogintzaren krisiari buruzko taldearteak antolatu zuen bilera politikoan parte hartu zuen Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak. Bilera horretan parte hartu zuten, besteak beste, Europako Parlamentuko zenbait kidek eta Suediako presidentziako ordezkari batek. Euskal ordezkariaren interbentzioak gai hauek jorratu zituen: sektorearen krisiari aurre egiteko Euskadin egiten ari diren ekintzak, eta epe motz zein ertainean enpresek eta estatu, eskualde, toki eta Europar Batasuneko gobernuek hartu beharko lituzketen neurriak.

82. Osoko Bilkuraren laburpena (2009ko abenduak 3-4)

Aste horretan jarri zen indarrean, denbora luzez zain izan eta gero, Lisboako Tratatu (2009ko abenduaren 1ean, hain justu), eta nabarmentzekoa da Tratatu horrek indartu egiten duela eskualdeek eta hiriek EBko prozesu politikoan duten egitekoa. Ildo horretatik, Eskualdeetako Komitearen azken osoko bilkurak Tratatu horren aplikazioa eztabaidatu zuen, Tratatu horrek eskualdeei eta toki-erakundeei ematen dizkien ahalmen eta eskubide berrien ondorioz, aldatu egin behar baita Komitearen beraren funtzionamendua.

Eztabaidatu zen beste gai nabarmenetako bat izan zen “Lisboako Estrategiari” beste bultzada bat ematea aldarrikatzen duena; izan ere, Estrategia 2010etik aurrera berrituko da, hazkundera eta enplegua ardatz hartuta. Europar Batasunaren agiri horrek lehentasunen agenda ezarriko du (EB2020), hazkunde ekonomikoaren, enpleguaren eta gizarte-kohesioaren alorretan. Estrategia hori indartzeko ideiak azaldu zituzten Komiteko kideek, eta, besteak beste, eskualdeetako eta toki-eremuetako erakundeen inbertsio-potentziala baliatzea proposatu zuten; halaber, ekologiarekin lotutako gaitasunak eta enpleguak indartzeko estrategia europar bat egin behar litzatekeela adierazi zuten.

Eusko Jaurlaritzak 12 zuzenketa aurkeztu zizkien Europar Batasuneko zenbait arau-proposamenei, bai hauekin lotuta: Lisboako Estrategiak 2010aren ondoren izango duen etorkizuna, Europar Batasuneko basogintza-politika, Europaz gaindiko garraio-sarearen etorkizuna, Arrantzako Erkidego Politika eta enplegua.

Hauek dira, laburtuta, Eusko Jaurlaritzak aldarrikatu zituen ideia nagusiak:

- EB2020 Estrategia izango denaren aurrean, adieraztea lurralde-planteamendu komun bat izan behar dutela politika guztiek, eta planteamendu horrek aintzat hartu behar dituela eskualde eta toki-eremuen berezitasunak.
- aurrekontu nahikoa izan behar du, Europar Batasunak lurralde-garapen orekatua izan dezan.
- aldarrikatu behar da diru-sarrerak bermatzeko politika pasiboek lotuta joan behar dutela lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegua aktibatzen politikekin.
- estatuen arteko koordinazioa hobetu dadin sustatzea Europako garraio-sareen alorrean, eta, ildo horretatik, lehentasuna ematea muga-arteke bide-tarteei eta, plataforma logistikoen bidez, bigarren mailako eta eskualdeetako sareak indartzea.
- eskualdeetako eta toki-eremuetako aireportuen bideragarritasuna bermatzea, eta, hori horrela izan dadin, Europar Batasunak iragarritako aireportu-tasak kalkulatzeko eta finkatzeko arauak ez kaltetzea aireportu txikiei edo bidaiari gutxien izaten dituztenei.
- teknologia modernoak bultzatzea, egurra egungoa baino ingurumen-inpaktu txikiagoz lortu eta ekoizteko, eta, garapen iraunkorra bermatuz, kudeaketa-kostuak merkatzeko.

- basogintzako ekonomia iraunkorraren esparruko hezkuntza- eta prestakuntza-ekintzak indartzea, bai basoen jabe txikientzat, bai basoen kudeatzaileentzat.
- Zientziaren eta ikerketaren ekimenak babestea, arbola-barietateen energia-aukerak eta landatze-moduak aztertzeke, klima- eta geografia-ingurunetara egokitzeko dauden aukerak eta hobekuntza genetikoak egiteko aukerak aztertzeke; betiere, produktibitatea handitzeko xedez.
- arrantza-jarduerak udalerriekin duen lotura ekonomikoa eta soziala aintzat hartzea artisau-arrantzontzien kontzeptua definitzeko orduan.
- Batzordeak arrantzategien kudeaketa-sistemetan proposatu nahi duen aldaketa ez izatea derrigorrean hautatu beharra proposatutako bi irizpideetako bat; hau da, edo ontzi batek itsasoan eman ditzakeen egunak mugatzea edo egungo sistema (arrantza-kuotak) erabiltzea. Hala, haren ezaugarriekin hobekien egokitzen den sistemaren bidez kudeatuko litzateke arrantzategi bakoitza (sistema mistoa ere izan daiteke).

Euskadik egindako zuzenketa ia denak onartu zituen osoko bilkurak. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 49 zuzenketa jaso zituen beste autonomia-erkidego batzuetatik eta Europako beste eskualde batzuetatik. Haiek Jaurlaritzako sailekin aztertu ondoren, 25 babestu ziren.

“Autogintzaren krisia” taldearteak mintegi bat antolatu zuen Bruselan, eztabaidatzeko zer estrategia erabiltzen ari ziren eskualdeak sektoreko krisiari aurre egiteko. Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Industria Saileko ordezkari Jesús ONAINDIA jaunak hitzaldi bat eman zuen Euskadiren egoera eta autonomia-erkidegoak eta estatuak hartutako neurriak azaltzeko.



81. Osoko Bilkurako argazkia. Ezkerretik eskuinera: Orosz alkatea; Lehendakaria, Olofson lehen ministro-ordea, Hübner europarlamentaria, Van den Brande presidentea, Barroso presidentea, Samecki komisarioa eta Jacki Davis kazetaria.

AHOLKULARITZA-LANA

1.- Iritzi-eskaerak jaso dituzten Eusko Jaurlaritzaren sailak eta haien jarrera

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak **52 aldiz** eskatu du Eusko Jaurlaritzako sailen iritzia Europako denetarikoa aztertzen duten Eskualdeetako Komitearen **46 irizpen-proiektutan**².

Taula honetan ikusten da iritzi-eskaeren **banaketa, Osoko Bilkuren arabera**:

| Osoko Bilkura zk. | Data | | Iritzi-eskaeren kop. |
|-------------------|------------------|------|----------------------|
| 78 | Otsailak 11 - 12 | 2009 | 17 |
| 79 | Apirila 21 - 22 | 2009 | 15 |
| 80 | Ekaina 17 - 18 | 2009 | 0 |
| 81 | Urriak 7 - 8 | 2009 | 9 |
| 82 | Abenduak 3 -4 | 2009 | 11 |

Aurreko urteko (2008) datuekin alderatuz gero, bistakoa da sailen eskaera-kopurua txikiagoa dela: 2008an 77 iritzi-eskaera egin genituen, eta 2009an, berriz, 52. Arrazoiak asko dira: 2009ko martxoaren 1eko hauteskundeak eta Eusko Jaurlaritza berria osatzeko trantsizio-aldia, Europako Parlamenturako hauteskundeak eta Batzorde berriaren osaera.

Sailak eta landutako gaiak

Irizpenetan askotariko gaiak biltzen direnez, zehatz-mehatz adierazi behar da zer saili dagokion gai bakoitza. Taula honetan, sailak eta 2009an zehar landutako gaiak lotzen dira.

² Eranskinean, 2009an aztertutako irizpenen zerrenda erantsi da.

2009ko urtariletik apirilerako datuak:

| Sailak | Gaiak |
|---------------------------------------|---|
| Lehendakaritza | -Europako integrazioa eta erakundeak -Kanpo Harremanak - Eskualde-politika |
| Lehendakariordetza | -Informazioaren gizartea |
| Ogasun eta Herri Administrazio Saila | -Telekomunikazioak - Eskualde-politika -Ekonomia- eta osasun-politika |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | -Energia - Enpresa-politika -Turismoa, ikerketa eta garapena -Kontsumoa |
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | -Immigrazioa - Garapenerako lankidetzak |
| Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza | -Gizarte-ongizatea |
| Osasungintza | -Osasun publikoa |
| Kultura | -Kultura |
| Ingurumena eta Lurralde Antolamendua | -Ingurumena |
| Garraio eta Herri Lana | -Garraioak |
| Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura | -Elikadura |
| EUDEL | -Hiri-politika eta etxebizitza |

2009ko irailetik abendurako datuak:

| Sailak | Gaiak |
|--|---|
| Lehendakaritza | Europako integrazioa eta erakundeak |
| Ekonomia eta Ogasuna | -Ekonomia- eta osasun-politika |
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa | -Hezkuntza -Unibertsitateak |
| Herrizaingo Saila | -Giza eskubideak - Babes zibila |
| Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa | -Teknologiak - Informazioaren gizartea |
| Enplegua eta gizarte-gaiak | -Enplegua – Immigrazioa -Gizarte Ongizatea |
| Osasun eta Kontsumo Saila | -Osasun publikoa |
| Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza | -Nekazaritza- Arrantza -Ingurumena |
| Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila | -Garraioak |

Kontsultatutako sailak eta haiek emandako erantzunak

2009an, 52 iritzi-eskaera egin eta 45 erantzun jaso dira; hots, **erantzun-maila % 80koa** izan da.

Eusko Jaurlaritzak Eskualdeetako Komitean duen partaidetza xehetasun handiagoz aztertzeko, kontsultatutako sailen eta haien erantzunen zerrenda aurkezten da.

2009ko urtarriletik apirilerako datuak:

| Sailak eta erakundeak | Helarazitako eskaerak | Jasotako erantzunak |
|---------------------------------------|------------------------------|----------------------------|
| Lehendakaritza | 5 | 5 |
| Lehendakariordetza | 1 | 1 |
| Ogasun eta Herri Administrazio Saila | 4 | 4 |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | 5 | 3 |
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | 3 | 3 |
| Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza | 2 | 1 |
| Osasungintza | 3 | 3 |
| Kultura | 1 | 0 |
| Ingurumena eta Lurralde Antolamendua | 2 | 2 |
| Garraio eta Herri Lana | 3 | 2 |
| Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura | 1 | 1 |
| EUDEL | 2 | 0 |
| Guztira | 32 | 25 |

2009ko irailetik abendurako datuak:

| Sailak eta erakundeak | Helarazitako eskaerak | Jasotako erantzunak |
|---|------------------------------|----------------------------|
| Lehendakaritza | 1 | 1 |
| Ekonomia eta Ogasuna | 1 | 1 |
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa | 3 | 3 |
| Herrizaingo Saila | 2 | 2 |
| Industria, Berrikuntza, Merkataritza | 1 | 1 |

eta Turismoa

| | | |
|--|-----------|-----------|
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | 3 | 3 |
| Osasungintza | 1 | 1 |
| Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila | 3 | 3 |
| Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza | 5 | 5 |
| GUZTIRA | 20 | 20 |

Sailek emandako erantzun-motak

Iritzi-eskaerari erantzuteko orduan, sailek bi erantzun-mota eman ditzakete: irizpenarekiko adostasuna, edo irizpenari zuzenketak aurkeztea.


Jasotako 45 erantzunak honelakoak izan dira:

- **Adostasunezko 28** erantzun; hau da, jasotako erantzun guztien **%62**.
- **17** erantzun **zuzenketekin**; hau da, sailek bidalitako erantzun guztien **%38**.

Aurreko urteetan ez bezala, irizpen-proiektuekin ados dauden erantzunak gehiago izan dira zuzenketak proposatu dituztenak baino. Hain zuzen, irizpen-proiektuekin ados dauden erantzunak %3 gehiago dira aurreko urtearekin alderatuz gero.

Xehetasun gehiago eskuratzeko, hurrengo grafikoan adierazi dira lortutako emaitzak:

Grafikoa: Sailek emandako erantzun-motaren bilakaera 2008 eta 2009 artean



2.- Jarreraren defentsa: Eusko Jaurlaritzaren zuzenketak

Idatzitako, aurkeztutako eta onartutako zuzenketak

2009an, Eusko Jaurlaritzako sailek **53 zuzenketa egin dizkiete guztira** Eskualdeetako Komitearen irizpen-proiektuei. 53 zuzenketa horietarik, **35ek** aurkezteko behar adina babes lortu zituzten eta **31 onartu** egin ziren. Taula honetan datoz zuzenketak proposatu dituzten sailak, eta haien emaitza:

2009ko urtarriletik apirilerako datuak:

| Kontsultatutako saila/erakundea | Landutako zuzenketak | Aurkeztutako zuzenketak | Onartutako zuzenketak |
|--|-----------------------------|--------------------------------|------------------------------|
| Lehendakaritza | 4 | 4 | 4 |
| Ogasun eta Herri Administrazio Saila | 2 | 2 | 2 |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | 1 | 1 | 0 |
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | 3 | 2 | 2 |
| Ingurumena eta Lurralde Antolamendua | 3 | 3 | 3 |
| Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura | 5 | 5 | 5 |
| Guztira | 18 | 17 | 16 |


2009ko ekainetik abendurako datuak:

| Kontsultatutako saila/erakundea | Landutako zuzenketak | Aurkeztutako zuzenketak | Onartutako zuzenketak |
|---|-----------------------------|--------------------------------|------------------------------|
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa | 9 | 0 | 0 |
| Herrizaingo Saila | 6 | 2 | 2 |
| Osasun eta Kontsumo Saila | 3 | 3 | 2 |
| Ekonomia eta Ogasuna | 3 | 2 | 2 |

| | | | |
|---|-----------|-----------|-----------|
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | 1 | 1 | 1 |
| Ingurumena, Lurralde Antolamendua, Nekazaritza eta Arrantza | 9 | 6 | 5 |
| Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila | 4 | 4 | 3 |
| GUZTIRA | 35 | 18 | 15 |

Nabarmendu behar da 2009an legegintza-jarduera urria izan zela, Europako Parlamenturako hauteskundeak izan zirelako eta Europako Batzorde berria aukeratu zelako.

Grafikoa: 2008 eta 2009 artean idatzi, aurkeztu eta onartutako zuzenketen bilakaera




Onartutako zuzenketen ehunekoa

2009an onartutako zuzenketen kopurua 2008koa baino handiagoa dela ohartu gara (2009an % 89, eta, 2008an, % 85).

Horrek esan nahi du aurkeztutako 10 zuzenketatik ia 9 onartu zirela 2009an.

Grafikoa: 2008 eta 2009an onartutako zuzenketen ehunekoa



3.- Beste eskualde batzuek egindako zuzenketen aurkezpen bateratua

Eusko Jaurlaritzak bere zuzenketak beste eskualde batzuei helarazi dizkien moduan babesa eskuratzeko, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak aurkezteko babes bila dabiltzan beste eskualde batzuen zuzenketak jasotzen ditu, jarraian datorren taulak islatzen duen bezala.


2009an zehar, Espainiako 12 eskualdek, Itsasertzeko Eskualde Periferikoen Komiteak eta ALDE eta PES Talde Politikoeak **256 zuzenketa** bidali zizkiguten, gure babesa eskuratu eta zuzenketak elkarrekin aurkezteko asmoz. Horietako **123 babestu zituen Eusko Jaurlaritzak**. Horrek esan nahi du jasotako zuzenketen % 50 inguru babestu dituela Eusko Jaurlaritzak.

| Zuzenketen bidaltzaileak | Jasotako zuzenketen kop. | Euskadik babestutako zuzenketen kop. |
|---|--------------------------|--------------------------------------|
| <p>Andaluzia</p> <p>Arrantza 1, baso-politika 1, kontsumitzaileen eskubideak 13, mugaz haraindiko osasun-asistentzia 2, immigrazioa eta mugikortasuna 1, nekazaritza-produktuen kalitatea 13, Small Business 4</p> | 35 | 27 |
| <p>Aragoi</p> | 13 | 6 |

| | | |
|---|----|----|
| PAC sinplifikatua 1, garraioen etorkizun iraunkorra 4, barne-araudia 3, ekonomia berreskuratzeko plana 5 | | |
| Asturias Liburu berdea: RTE 4, garraioen etorkizun iraunkorra 3, ekonomia berreskuratzeko plana 1, hiri-mugikortasuna 2, lurralde-koheresia 4, garraio ekologikoa 2 | 16 | 12 |
| Balear Uharteak Nekazaritza-produktuen kalitatea 2, lurralde-koheresia 1 | 3 | 1 |
| Kanariak Alfabetizazio mediatikoa 1, haur-esplotazioa 1, garraioen etorkizun iraunkorra 5, arrantza 1, Lisboako Estrategia 1, enplegu berriak 2, nekazaritza-produktuen kalitatea 3, lurralde-koheresia 2, integrazio-politika 4, mugaz haraindiko osasun-asistentzia 8, sendagaien paketea 1, klima-aldaketa 3, liburu berdea: RTE 3, Danubioren arroko Estrategia 1, Stockholmeko programa 6, lan-merkatua eta turismoa 2 | 44 | 27 |
| Gaztela eta Leon Sendagaien paketea 2, lurralde-koheresia 1 | 3 | 0 |
| Extremadura Kontsumitzaileen eskubideak 1, mugaz haraindiko osasun-asistentzia 4 | 5 | 4 |
| Galizia Sendagaien paketea 2, haur-esplotazioa 1, enplegu berriak 2, nekazaritza-produktuen kalitatea 8, lurralde-koheresia 5, mugaz haraindiko osasun-asistentzia 3 | 21 | 5 |
| Madril Sendagaien paketea 1, Progress mikrofinantziarioa 7, baso-politika 3, enplegu berriak 13, merkatua eta turismoa 3, hiri-mugikortasuna 4, zientzia eta teknologia 7, nekazaritza-produktuen kalitatea 5, lurralde-koheresia 7, garraio ekologikoa 2, barne-merkatua 1 | 53 | 14 |

| | | |
|---|------------|------------|
| Murtzia Trenbideko garraioa 2, liburu berdea: RTE 2, klima-aldaketa 4, gizarte-agenda berritua 1, lurralde-koheresia 1, EMAS eta etiketa ekologikoa 4 | 14 | 7 |
| Nafarroa Gaixoen segurtasuna 1, integrazio-politika 2, immigrazioa eta mugikortasuna 2 | 5 | 4 |
| Valentzia Baso-politika 1, hiri-mugikortasuna 6 | 7 | 0 |
| PES Garraioen etorkizun iraunkorra 6 | 6 | 4 |
| ALDE Kontsumitzaileen eskubideak 8, energia-errendimendua 1, globalizazioaren europar funtsa 4, ekonomia berreskuratzeko plana 3, lurralde-koheresia 2, EMAS eta etiketa ekologikoa 2, mugaz harandiko osasun-asistentzia 5, nekazaritza-produktuen kalitatea 3 | 28 | 10 |
| CRPM Lurralde-koheresia 2 | 2 | 2 |
| GUZTIRA | 256 | 123 |

Grafikoa: Beste eskualde batzuetako zuzenketei emandako babesaren bilakaera 2008 eta 2009 artean



Zuzenketa horiei babesa emateko orduan, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak sailtako teknikari espezializatuen laguntza izan du, bai eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko teknikarien laguntza ere (Gasteizkoak edo/eta Bruselakoak). Horiek denek beren iritzi arrazoitua ematen dute, Eusko Jaurlaritzak gaiari buruz duen politika kontuan hartuta, eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak balioespen hori helarazten die Eskualdeetako Komiteko euskal ordezkariaren sinadura eskatu diguten eskualdeei.

Beste eskualdeetatik jaso dugun zuzenketen kopurua ikusirik, aztertzeke eta balizko babesa emateko lana handia izan da, baina beharrezkoa da zuzenketa bateratuak aurkezteko. Izan ere, horrela jartzen dira agerian Euskadiren interesak Europan.

Taula hori dela-eta, argi utzi nahi dugu eskualde batzuek zuzenketa ugari aurkeztu arren, ez dutela Euskadiren babesa jaso, hainbat arrazoirengatik: batetik, aurkezpen-epaeratik. Batzuk mugaegunean bertan jaso ziren, eta, beraz, ez zen astirik izan aztertzeke eta erantzun bat emateko. Bestetik, zuzenketa batzuk hizkuntza-gaiak baino ez dira izan, hitz jakin batzuk lehenesten dituztenak baina eraginik ez dutenak EBko beste hizkuntza ofizialetara itzultzeke orduan. Eta, azkenik, zuzenketa batzuk Jaurlaritzako sailen iritzien eta gomendioen aurka zihoazen, eta haiei babesa ematea ez litzateke koherentea izango Eusko Jaurlaritzaren politikarekin eta Euskadiko interesen defentsarekin.

4.- Irizpenak prestatzeko beste tresna batzuk

Irizpenen kalitatea hobetzeko, Komiteko kideak diren eskualdeen eta udalerrien parte-hartze aktiboagoa sustatzeko, eta irizpenak egiten hasten garen unetik bertatik jarrerak

integratzeko, Eskualdeetako Komiteak parte-hartzeko tresna berri bat jarri du abian, galde-sorten bidez.

Galdera-sorten bidez, gainera, Europan zehar gertatzen ari diren kasu zehatzen adibideak azter daitezke, eta era horretan erabaki daiteke erkidegoko araudi berriaren ikuspegiak nolakoa izan behar duen, eta nolako eragina izan dezakeen Europar Batasuneko lurraldeetan.

Galdera-sorta horiek txostengileak berak eskatuta prestatzen dira, eta gai eztabaidagarri bati buruz edo lurraldean eragin handia duen auzi bati buruz Eskualdeetako Komiteak iritzia eman behar duenean egin ohi dira. Txostengileak, era horretan, tokiko eta eskualdeko esperientziak lehen eskutik ezagutzeaz gain, zuzenketa gehiegi aurkeztea ekidin dezake, edo zuzenketa kopurua murriztu.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak galdera-sorta hauek bete ditu 2009an:

Eskualdeetako Komitearen kontsulta Lisboako Estrategiaren etorkizunari buruz (EB 2020 estrategia)

Eskualdeetako Komiteak Europako eskualdeetako eta tokiko agintaritzei kontsulta bat egin zien 2010etik aurrerako Lisboako Estrategiari buruz, beren ikuspegiak eta kezkek 2010ean egingo den Udaberriko Europar Kontseiluari jakinarazteko, horri buruzko erabaki bat har dezan.

Eusko Jaurlaritzaren nahia da EB 2020 estrategia **osoagoa izatea, garapenaren dimentsio guztiak hartzeko**. Esperientziak erakusten digu lehiakortasuna eta hazkunde ekonomikoa funtsezkoak direla bizi-maila eta enplegua areagotzeko, baina horietan arrakasta izateak ez duela automatikoki bermatzen gizarte-kohesioa, ez eta ingurumena hobetzea ere, eta alderdi horiek ezinbestean jaso behar dira "garapen iraunkor" deitzen dugun horretan.

Bestalde, Estrategiaren gobernantzari dagokionez, uste dugu, hala estrategia adierazteko nola estrategia hori dagokion esparruan hedatzeko, oso komenigarria dela alde interesdun guztiek, eta, bereziki, gobernu eta administrazio eskudun guztiek parte hartzea. Horregatik, eskualdeek funtsezko piezak izan behar dute EB 2020 Estrategiaren helburuak zehazteko. Gainera, Europako eta tokian tokiko lehentasunak konbinatu beharko lirateke, bi estrategiak bateragarriak direla eta elkar sendotzen dutela bermatuta.

Bestalde, EB 2020 Estrategia berriak **Europar Batasunaren aurrekontu-ikuspegiaren (finantza-aukerak) eta ikuspegi estrategikoaren (2010etik aurrerako lehentasun berriak) arteko ezinbesteko koherentzia** ezarri behar du.

Horren haritik, kontsultako dokumentuan adierazitako eta Eusko Jaurlaritzak izenpetutako hiru lehentasun nagusiek (ezagutzan oinarritutako hazkundera, hiritarren papera gizarte inklusiboetan eta ingurumena errespetatzen duen gizarte lehiakorra) osatu beharko lituzkete etorkizuneko Kohesio Politikako Zuzentarauak, eta EBk batera finantzatutako erkidegoko esku-hartzeek horiei erantzun beharko liekete. Hala planteatutako zuzentarauak gaur egungo ekonomia eta gizarte-kohesiorako politikaren esku-hartzeetarako (Egiturazko Funtsek eta Kohesio Funtsek babestutako programak) eta Lurralde Kohesiorako Politikaren aplikazio eraginkorrekekin loturiko esku-hartzeetarako aplikatuko dira.

Beraz, Kohesio Politika EB 2020 Estrategia berriarekin bat datorrela uste du Eusko Jaurlaritzak, eta horren alde egiten du.

Ekonomia Berreskuratzeko Europako Planari buruzko Eskualdeetako Komitearen kontsulta

Ekonomia Berreskuratzeko Europako Plana 2008ko abenduan abiatu zenean, EB eta estatu kideen asmoa zen ekintza koordinatuari ekitea, krisiaren eraginei aurre egiteko.

Kontsultaren helburu nagusia zen ekonomia- eta finantza-krisiaren eragina eskualdeetan eta tokian-tokian aztertzea, eta Ekonomia Berreskuratzeko Europako Planaren baitan hartutako neurrien lehen balorazioa egitea eskualdeetako eta tokian tokiko agintariek.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen zein ziren eskualdeko arazo sozio-ekonomiko nagusiak eta bere administrazioko aurrekontu-politikaren arazo nagusiak, zer sektoreri eragin dien gehien krisiak, bai eta Euskadiko jarduera ekonomikoen eta enpleguaren joerei buruzko aurreikuspenak ere.

Eusko Jaurlaritzaren ustez, Euskadin ez du, gaur egun arte, ondorio handiegirik izan krisiaren eraginei aurre egiteko Ekonomia Berreskuratzeko Europako Planak. Gainera, EBko Egiturazko Funtsen ekarpenak ez zuen asko lagundu gure lurraldean krisiaren eraginei aurre egiteko.

Dena den, Europako Inbertsio Bankuaren (ETEetara, energia berriztagarrietara eta garraio garbira bideratua) esku-hartzeen kopuruak gora egin izana, eta automobilgintzako eta eraikuntzako teknologia garbietara bideratutako I+G+b

inbertsioen gorakada funtsezkoak izan dira ekonomia berpizteko. Estatuko laguntzak emateko denbora-epea, Batzordeak 2008an onartua, oso egokia da.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren ustez, jardueretan eta informazio-trukean koordinazio egokia izan da Eusko Jaurlaritzaren eta sektore pribatuaren artean, bai eta gobernu zentralaren eta EBren artean ere. Ekonomia Berreskuratzeko Europako Planari atxikita, Euskadik askoz ere paper aktiboagoa izan dezake krisiaren aurkako borrokan.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak krisiaren eraginei aurre egiteko Euskadin egindako jardueren laburpen bat aurkeztu zuen.

5.- Subsidiaritatearen azterketa

Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarra Subsidiaritate Printzipioa Kontrolatzeko Sareko (Subsidiarity Monitoring Network) kide dira. Sare horretan, EBko eskualdeetako eta tokian tokiko gobernuetako 96 kide daude. Horregatik, sare horren Koordinazio Batzordearen bileretara joaten gara.

2005ean sortu zen sare horren helburua da eskualdeetako eta tokian tokiko agintarien eta EBren artean informazioa trukatzea; hain zuzen, eskualdeetako eta tokian tokiko eskumenetan eragin zuzena duten Batzordearen proposamenekin lotutako informazioa.

Eskualdeen Komiteak subsidiarotasunaren alorreko 2009-2010 Ekintza Plana argitaratu zuen, Europako eskualde eta hirietan Subsidiaritasun Printzipioa aplikatzeari buruzko esperientzia eta praktika onenak identifikatzeko asmoarekin. Horretarako, 5 lan talde osatu zituen, eta horietako talde batean Euskadi izango da buru. Talde horrek gizarte berrikuntza hazkunde ekonomikoa eragiteko erabiltzea aztertuko du eta Innobasque, SPRI eta gai honekin zerikusia duten beste zenbait eragileren lankidetzatza izango du Euskadin. Talde horren eginkizuna praktika onenak identifikatu eta amaiera txosten bat idaztea izango da. Txosten horretan subsidiaritasun printzipioa gizarte berrikuntzaren arloan aplikatzeko erari buruzko gomendio politikoak jasoko dira.

Beste Lan Taldeak honako gaiak jorratuko dituzte:

1. Etorrinen integrazioa hiri-eremuetan
2. Hiritarren parte hartzea irtenbide energetiko sostengarrietan
3. Osasun desberdintasunak EBn
4. Txirotasunaren eta gizarte bazterkeriaren aurkako borroka

Subsidiaritate Printzipioaren aplikazioari buruzko Urteko Biltzarra

Subsidiaritate Printzipioa Kontrolatzeko Sareak Urteko IV. Biltzarra antolatu zuen Milanen 2009ko maiatzaren 8an. Aurrekoak Parisko Senatuan, Britainiar Parlamentuan, Westminsterren, eta Alemaniako Bundesraten izan ziren. European Subsidiaritatearen kultura inplementatzeko moduari buruz eztabaidatzea zen helburua, bai eta horrekin lotutako jardunbide egokien adibideak ematea ere.

Horrez gain, eskualdeetako eta tokian tokiko ordezkariak baterako adierazpen bat onartu zuten, Subsidiaritatea aplikatzeko eskualdeetako eta tokian tokiko agintarien garrantzia nabarmentzeko. Eusko Jaurlaritzak maila teknikoan hartu zuen parte, Eusko Jaurlaritza berria osatzen ari zelako.

Kontsultak

Subsidiaritate Printzipioa Kontrolatzeko Sarearen esparruan, erkidegoko etorkizuneko arauen Subsidiaritate eta Proportzionaltasun Printzipioak betetzeari buruzko berariazko kontsultetan parte hartu du Eusko Jaurlaritzak. Tokian tokiko eta eskualdeetako erakundeen erantzunak Eskualdeetako Komiteko txostengileek erabili dituzte, beren irizpenetan sartzeko; erkidegoko egiturako prozesu politikoan sartzeko, azken finean.

Batzordearen “EBko biohondakinak kudeatzeko Liburu Berdearen” (2008. urtea, 811 amaierakoa. 2009ko otsaila-martxo) Subsidiaritate eta Proportzionaltasun Printzipioa betetzeari buruzko berariazko kontsulta

Euskadiko hondakinen Koordinazio Organoak egin zuen kontsulta. Organo hori Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Arabako Foru Aldundiak osatzen dute. Guztira EBko eskualdeetako eta tokian tokiko 12 erakundek hartu zuten parte kontsultan.

Komertzializatzen ez diren eta hondakin bihurtzen diren elikagaien kudeaketa egokia nabarmentzea da Euskadiren zeregina, biohondakin gutxiago sortzeko neurri gisa. EBko zabortegien zuzentaraua funtsezko tresnatzat hartzen da, hondakin biodegradagarriak murrizteko, zabortegetan utzi daitezkeen hondakinen kantitatea gehiago mugatuko ez lukeen arren. Gomendagarriagoa litzateke zuzentaruak emaitzekin lotutako helburuak adieraztea.

Biohondakinak birziklatzeko, konpostaren eskaera bultzatzea ere garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzaren ustez, eta Euskadin zer zailtasun dauden adierazten du. Konposta arautzeko, produktuei buruzko europar arau bateratuak aintzat hartu behar direla iruditzen zaio, eta beharrezkoa dela konpostari buruzko kalitate-arauak ezartzea erkidegoan. Bestalde, txostenean adierazten denez, European birziklapenarekin lotutako helburu bateratuak ezarri behar dira, baina emaitzekin lotuta, eta biohondakinak birziklatzeko gutxieneko ratioak finkatuta, eskualdeetako eta tokian tokiko erakundeek onartzeko modukoak.

Eraginaren azterketa

Europar Batzordeak eta Eskualdeetako Komiteak 2005ean izenpetutako lankidetzakordioaren ondoren, eta 2008an azken horren Mahaian hartutako Erabakiaren ondoren, tokian tokiko eta eskualdeetako agintarientzat interesgarriak diren gai buruzko Batzordearen proposamenen eraginaren ebaluazioei buruzko kontsultak antolatzen hasi zen Eskualdeetako Komitea.

Europar Batzordeak ekimen berri bat proposatu aurretik, EBren etorkizuneko araudiek izan ditzaketen ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-ondorio potentzialak aztertzean datza eraginaren azterketa. Hartara, proposamenaren eragin potentzialaren azterketak erabakia hartu behar dutenei laguntzen die, aukera politikoen abantailen eta desabantailen berri izaten.

Eraginaren azterketaren helburuak hauek dira:

- Batzordeari eskualdeetako datu kuantitatiboak eta kualitatiboak jakinaraztea, eta gai horretan tokian tokiko nahiz eskualdeetako agintariek dituzten interesen berri ematea.
- tokian tokiko eta eskualdeetako agintariek arduradunekiko komunikazio-kanal bat izatea, EBko erabakiei buruz jarduteko.
- tokian tokiko eta eskualdeetako agintariek parte hartzea erabakiak hartzeko lehen faseetan.
- lurralde-kohesioa lortzeko tresna erabilgarria izatea.

Eskualdeetako Komiteak eraginaren azterketari buruzko lehen ariketa pilotua jarri zuen abian 2009ko otsailean. Lehen kontsulta horretarako aukeratutako gaia osasun-arloko desberdintasunei buruzkoa izan zen. Gero, giza kontsumorako uraren kalitateari buruzko kontsulta bat jarri zen abian.

Batzordearekin batera identifikatzen dituen gaiak lurraldean duten eragina aztertzen jarduten du Eskualdeetako Komiteak. Eskualdeetako Komiteak erantzunak jasotzen ditu, aztertu, Batzordearen Idazkaritza Orokorrera eta Batzordean arduradun den Zuzendaritza Orokorrera bidaltzen ditu. Etorkizunean Batzordeak argitaratuko duen azken eraginaren azterketak eta ekimen berriak lurralde-eraginari buruzko ekarpenak bilduko ditu, tokian tokiko eta eskualdeetako agintariek kontsultari egindako ekarpenak eta horien ondorioak oinarri hartuta.

Etorkizuneko “Osasun-desberdintasunak murrizteko erkidegoko ekintzen” eraginaren azterketari buruzko kontsulta (2009ko otsaila-apirila)

Eraginaren azterketa hori Eusko Jaurlaritzaren Osasun saileko zuzendaritzak prestatu zuen. Guztira EBko eskualdeetako eta tokian tokiko 13 erakundek hartu zuten parte kontsultan.

Eusko Jaurlaritzaren ustez, EBren politikek osasun-desberdintasunak kudeatzeko balio behar dute.

Gainera, erkidegoko ekintzak konpromiso politikoa bultzatu dezake estatu-mailan, bai eta estatu- edo eskualde-politikak garatzea erraztu ere, osasun-desberdintasunak murrizteko. Europan, osasun-berdintasuna lortzeak lehentasuna izan behar du. Horrez gain, erkidegoko ekintzek ez dute izan behar osasuna zaintzeko politika hutsak, osasunean eragina izan dezaketen beste politika batzuk ere badaudelako.

Mugaz haraindiko lankidetzaren ere baliagarria da, esparru horretako desberdintasunei aurre egiteko. Osasun-berdintasuna eta osasunarekin lotutako gizarte-desberdintasunen murrizketa Euskadiko 2002-2010 Osasun Politikako Planean sartu dira. Hilkortasuna, tabakismoa, obesitatea, minusbalotasunak, alkoholismoa eta abar dira Euskadiko eta Europako beste eskualde batzuetako osasuna alderatzeko adierazleak. Gaur egungo ekonomia- eta finantza-krisiak gizarte-talde ahulenetan eragin larria izango duela esaten da, eta, beraz, funtsezkoa da ongizate-politikak bermatzea, gizarte-babesaren eta osasunaren arretaren esparruetan.

“Edateko uraren Zuzentarauaren berrikuspenaren” Eraginaren Azterketari buruzko kontsulta (98/83/EE zuzentaraua) (2009ko urria-azaroa)

Eraginaren azterketa hori Eusko Jaurlaritzaren Osasun saileko zuzendaritzak prestatu zuen. Euskadiz gain, guztira 93 parte-hartzailek egin zuten, nor bere lurraldean, eraginaren azterketa.

EBn uraren derrigorrezko segurtasun-planak oinarritzeko moduan sartzearen aldekoa da Eusko Jaurlaritzak, eta nazioko eta nazioz azpiko esparruetatik zabaldu ahal izatearen aldekoa. Obligazio horrek mota guztietako ur-hornidurak hartu behar ditu bere baitan, handiak zein txikiak, bai osasun-arrazoiengatik bai Europako homogeneontasun-irizpideengatik. Eusko Jaurlaritzaren ustez, obligazio hori ez litzateke garestiegia Euskadirentzat, dagoeneko baditugulako autokontrol-planak, bai eta kontsumitzaileekin harremanetan jartzeko bideak eta informazio-sistemak ere.

Dena den, gune txikietako horniduretarako (50 erabiltzaile) erregulazioari beste modu batean ekin behar zaio: kontsumitzailearen informazioa lehenetsi behar da, eta tresna arriskuak murrizteko erabili, epe motzean arriskuak kontrolatzeko neurriak bideratu ezin diren kasuetan.

BESTE JARDUERA BATZUK

6.- Lehendakariaren bisita Bruselara

Patxi López lehendakariaren lehen bisita ofiziala, Espainiatik kanpo, Bruselara egindakoa izan zen, 2009ko urriaren 5ean. Eskualdeetako Komitearen osoko bilkuran hartu zuen parte, Europar Parlamentuko hemizikloan, eta “Open Days” edo Europako Eskualdeen eta Hirien Astea inauguratu zuen, urtero Belgikako hiriburuan ospatzen dena.

Osoko bilkuraren hasiera-saioan, Europako Batzordeko presidente José Manuel BARROSO jaunaren, eta Suediako lehen ministrorde eta Enpresa eta Energiako ministro Maud OLOFSON andrearen hitzaldiak izan ziren. Europar Politikaren Zentroko ordezkari Jacki DAVISek moderatutako “Mundu-krisia. Eskualdeen erantzunak?” eztabaidan esku hartu zuen lehendakariak. Lehendakariarekin batera, Dresde hiriko alkate Helma OROSZ andreak, Eskualdeetako Komiteko presidente Luc VAN DEN BRANDE jaunak eta Eskualde Politikako Komisario Pawel SAMECKI jaunak hartu zuten parte eztabaidan.

Eskualdeetako Komiteko publikoaren aurrean, Europako Batzordeko Eskualde Politikako Zuzendaritza Orokorrak egindako “Eskualdeak 2020” txostena oinarri hartuta, lehendakariak adierazi zuen Euskadi dela globalizazioaren eta klima-aldaketaren erronkei aurre egiteko espainiar estatuan ondoen prestatutako autonomia-erkidegoa. Gainera, esan zuen Euskadi beste lurralde batzuk baino baldintza hobegoetan dagoela krisiari aurre egiteko, iraganean ekonomia globalizatuari eta – era berean globala den– krisiaren eskaerei moldatzeko ahalegina egin zuelako.

Horregatik, Europako eskualdeetako ordezkariari gomendatu zien ez egiteko ahalegina krisiaren premiei erantzuten soilik, baizik hazkunde ekonomiko berri baten oinarriak eta herrialde berri baten eredia finkatzen ere saiatzeko. Bestalde, Euskadiren autogobernu-ahalmena goratu eta munduko handienetakoa dela adierazi zuen, kontzertu ekonomikoaren berezitasuna balioesteaz gain.

Lehendakariak elkarrizketa izan zuen Europako Batzordeko presidente José Manuel BARROSO jaunarekin. Lehendakariak “Alakrana” euskal atunontziaren bahiketari heldu zion, eta “pirateriari aurre egiteko baterako segurtasuneko politika bultzatzeko” beharra azpimarratu zuen, bai eta “egutegi alternatiboak adosteko hirugarren herrialdeekin akordioak bilatzeko beharra ere”, orain arte oso geratuta egon dena. Horrez gain, Patxi LÓPEZek adierazi zion presidenteari beharrezkoa dela “Europar ere zigorgabetasuneko gunerik ez egotea ETaren egiturarentzat”. Amaitzeko, lehendakariak Euskadi bisitatzera gonbidatu zuen BARROSO, Espainia Europar Batasuneko presidentetzan dagoenean, 2010eko lehen seihilekoan Euskadin egingo diren bilerak direla eta.

Ondoren, Ekonomia Gaietako Europako Komisario Joaquín ALMUNIA jaunak egin zion harrera Patxi Lópezzi, gaur egungo ekonomia-krisia aztertu eta alternatibak bilatzeko. Lehendakariak argitu zuen Eusko Jaurlaritzak krisiaren aurka hartutako neurriak Ekonomia Berreskuratzeko Europako Planarekin bat datozela, eta Euskadiko agintariek abian jarritako ekimenak nabarmendu zituen.

Gainera, lehendakaria euskal enpresaburu batzuekin bildu zen, Europan dituzten kezkek lehen eskutik jakiteko. Lehendakariak enpresak nazioartean aritzearen garrantzia nabarmendu zuen, bai eta enpresak kanpora ateratzera bultzatzeko prestakuntza-ikastaroei laguntza ematea eta atzerrian Euskadiren irudi positiboa ematea ere.

Jardunaldiaren amaieran, harrera instituzionala egin zitzaion Belgikako hiriburuan bizi diren euskaldunei, Bruselako Euskadiren Ordezkaritza, euskal europarlamentario batzuekin eta beste zenbait pertsona ospetsuekin. Bertan, “euskal lobby bat sortzeko beharra” adierazi zuen, “adiera onean”. Alegia, autonomia-erkidegoaren eragina handitu behar dela europar politiketan, bai eta Euskadik eragiteko eta hobetzeko dituen aukerak ere. “Koordinatu, elkarrekin lan egin eta gure aukerak bultzatu behar ditugu EBri begira”.



Ezkerretik eskuinera: Eskualde Politikako Komisario Samecki jauna, Europako Parlamentuko kide Hübner andrea, Eskualdeetako Komiteko presidente Van den Brande jauna, presidente Barroso jauna, lehen ministrorde Olofson andrea, Orosz alkate andrea eta lehendakaria.

7.- Eskualdeen eta Hirien Europako Goi Bilera

Eskualdeen eta Hirien Europako Goi Bileran bat antolatu zuen Eskualdeetako Komiteak (EK), Europako eskualde eta hiriek etorkizuneko erronkei buruz duten ikuspegia aurkezteko. Amsterdam (1997) eta Wrocław (2005) hirietan egindako goi-bileren ostean, goi-mailako bilera hori Europako hiri historiko batean egin zen, Pragan, 2009ko martxoaren 5ean eta 6an.

Europar Batasunaren demokraziarentzat erabakigarria izan zen garai batean egin zen goi-bilerari; izan ere, Kontseilu Europarrak, krisi ekonomikoari aurre egiteko eta Hazkunderako eta Enplegurako Estrategia berpizteko, udaberrian egingo zuen bilera baino pixka bat lehenago egin zen, eta Europako Parlamentua eta Europako Batzordea berri baino hilabete batzuk lehenago.

Europako hirietako eta eskualdeetako seihun alkate eta presidente bildu ziren mezu politiko bat bidaltzeko estatuburuei eta gobernuburuei. Hain zuzen, adierazi nahi zieten nola aurre egin behar zaien egungo egoera ekonomiko eta politikoari, eta berriaz esan kohesio-politikoak bermatu behar dela eta lurralde-kohesioak onura handiak ekar ditzakeela. Luc VAN DEN BRANDE jaunak, Eskualdeetako Komitearen presidentea, goi-bileran honetan hartu zituen Txekiar Errepublikako lehen ministro Mirek TOPOLÁNEK, Europar Batasuneko Kontseiluaren presidentziaren ordezkari moduan, eta José Manuel BARROSO jauna, Europako Batzordeko presidente gisa.

Goi-bileran, 4 lan-saio egin ziren, eta hauek izan ziren horietan jorratutako gaiak:

Lehen eguna:

- I. saioa: “Europako eskualde eta hiriak susperraldi ekonomiko globalaren bultzatzaile”
- II. saioa: “Lurralde-kohesioa: erronka eta ikuspegi berriak”

Bigarren eguna:

- I. saioa: “Bere eskualde eta hiriekin batera emango da Europaren hazkundera”
- II. saioa: “Erantzukizuna partekatuz eta lankidetzaz zehatzak landuz”

Eskualdeek eta hiriek hazkunderaren eta enpleguaren susperraldiari buruzko kontsulta handiena egin zuen goi-bilerak. Europako lurralde-erakundeek bere gain hartuko dute Europar Batasunak 2020rako Estrategia prestatzeko lanetan dagokien ardura, eta Europako Kontseiluari helaraziko dizkiote beren ondorioak, azken erakunde horrek hartuko baitu Lisboako Estrategiaren etorkizunari buruzko azken erabakia.

Azkenik, goi-bileran, telebista-debate bat antolatu zen, Europako hauteskundera buruz hitz egiteko eta Europar Batasunak herritarren alde zer egin dezakeen jakinarazteko.

8.- “Autogintzaren krisia” eskualde-arte lantaldea

Bretainiako presidentek 2009ko urtarrilean proposatu zuen Europako eskualdeek lantalde edo “taldearte” bat sor zezaketela, autoen sektoreari laguntzeko neurriak eta tresnak proposatzeko. Munduko ekonomiaren krisi globalaren harian, estatuetao ekonomiek haren ondorioak pairatzen hasi ziren autoen sektorean, ibilgailuen salmentak beheraka handiak izan baititu. Gogoratu behar da sektore horrek langile ugari ematen diela lana³ eta Europako herrialde askoren ekonomiaren ardatzetako bat dela.

Europako erakundeek, egoeraren jakitun, neurriak eta tresnak proposatu zituzten krisi ekonomikoak autoen sektorean eragin zitzakeen kalteak arintzeko. Eskualdeetako Komiteak ere, eskualdeen eta toki-erakundeen ordezkariak EBn duten biltzar politikoa den aldetik, proposamen bat egin zuen autogintzaren krisiari aurre egiteko.

a) 175/2009 Ebazpenaren lehen urratsak eta haren onarpena

Taldearteak lan-egutegi bat finkatu zuen, bilera politikoak nahiz teknikoak egiteko, hiru ardatza hauen inguruan:

1. Sektoreak eskualdeetan pairatzen duen krisiaren diagnostikoa egitea, horrek gizartearen eta ekonomiaren sarean duen eragina aztertzea eta esperientzien trukea bultzatzea.
2. Europak krisiaren aurka egin dezakeena aztertzea, finantziarioaren eta araugintzaren esparruetan.
3. Ekintza-plan bat egitea eta ebazpen politiko bat ematea.

Urte hasieran taldeartea eratu zenetik da Eusko Jaurlaritza haren kide, eta gogoz parte hartu du lan-plangintzetan, baterako ekimenetan eta lan-saioetan. Jarduera horietan, beti izan ditu lagun ACICAE (Autogintzako EAE-ko Klusterra) eta haren zuzendari orokorra, Inés ANITUA andrea.

Ekainaren 18ko osoko bilkuran eman zuen Eskualdeetako Komiteak ebazpen politiko, eta haren izenburua “Europaren erantzuna autoen sektoreko krisiari”.

Ebazpen horrek bereziki nabarmendu zuen autoen sektoreko krisiak duen larritasun osoa aitortu behar dela, eta, bereziki, lurraldeetan eta enpresa txiki eta ertainetan izango duen eragina. Horrez gain, azpimarratu zuen oso garrantzitsua dela ekintzak abiaraztea, enpleguei eusteko eta krisi horrek langileentzat eta krisiaren eraginpeko enplegu-eremuentzat izango dituen gizarte-ondorioak arintzeko.

³ Europako industria-komisario *Günter Verheugen* jaunaren hitzetan, autoen sektoreak Erkidegoko 12 milioi-pertsona enplegatzen ditu zuzenean edo zeharka; hau da, Europar Batasuneko langileen %10.

Ebazpen horren bidez, bi asmo hauek adierazi zituzten Europako eskualdeek:

- Europako Batzordeari manatu behar zaio egungo dispositiboak garatu arazi ditzala, orain baino eraginkorrak izan daitezen, krisiak eragindako enplegatu, eskualde eta enpresa txiki eta ertainen mesedetan.
- Lanean hastea Europako Batzordeak industria-estrategia bat izan dezan autoen sektorerako. Europako eskualdeek parte hartze handia izan behar lukete estrategia hori prestatzeko garaian, eta, berariaz, estrategia horren aintzat hartu behar ditu mugikortasunaren esparruan, kutsadura-maila apalak dituzten ibilgailuen esparruan eta beste esparru batzuetan izan diren egiturazko aldaketak.

b) Bigarren urratsa: ekimen-irizpen bat egitea

Ebazpen-politikoa onartu ondoren, gaiari buruzko ekimen-irizpen bat egitea onartu zuen Eskualdeetako Komitearen burutzak, eta Britainiako presidente Yves LE DRIAN jaunari eskatu zion horri buruzko txostena egiteko.

Taldeartean ekimenez eta irizpenak izan behar lituzkeen oinarrizko ideiak finkatzeko, bi mintegi egin ziren 2009ko ekainaren 18 eta 19an, bat politikoa eta bestea teknikoa. Mintegi teknikoaren izenburua “Nola lagundu autoen industriaren lehiakortasunari gure lurraldeetan?” izan zen, eta, bertan, Europako zenbait *klusterrek* —horien artean ACICAE klusterrak, bere ordezkari Gonzalo GARRIDO jaunaren bidez— azaldu zuten zer ikuspegi duten autogintzaren krisiarekiko, zer neurri hartu dituzten klusterrek eta eskualdeetako gobernuek, zer neurri hartu beharko liritekeen eta nola susta daitekeen eskualdeetako klusterren arteko lankidetzak. Mintegiaren ondoren, gaiari buruzko debate interesgarri bat izan zen.

Eskualdeetako Komitearen 81. Osoko Bilkuran, taldearteko kide politikoak urriaren 6an bildu ziren, gaiaren aurreikuspen berriak eztabaidatzeko. Eskualdeetako Komiteko kideez gain, Europako Parlamentuko zenbait kide eta Europar Batasuneko presidentziako (Suediaren esku aldi horretan) kide bat izan ziren bilkura horretan.

Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Euskadiko egoerari buruzko datu eguneratuak eman zituen bere interbentzioan eta, horrez gain, Europako eskualdeek bete beharreko neurriak aurkeztu zituen: epe motzean, enpresen finantziario laguntzearen alde azaldu zen, ibilgailuen eskaera pizten laguntzeko; eta, epe ertainean, eredu

ekonomikoaren aldaketa laguntzearen alde, balioaren, berrikuntzaren eta iraunkortasunaren katearekiko lankidetzak sustatzen duen heinean.

Eskualdeetako Komitearen 82. Osoko Bilkurarekin batera, 2009ko abenduaren 2an, "Autogintzaren krisia" taldearteak mintegi bat antolatu zuen Bruselan, aztertzeko zer estrategia baliatzen ari diren eskualdeak sektorearen krisiari aurre egiteko. Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Industria Sailaren ordezkari Jesús ONAINDIA jaunak hitzaldi bat eman zuen. Hitzaldian, Euskadiren egoera azertu zuen eta Euskal Autonomia Erkidegoak eta estatuak hartutako neurriak azaldu zituen.

Eskualdeen Komiteak 2010ean egingo duen lehen osoko bilkuran onartuko da, behin betiko, irizpena.

9- Hazkunderako eta Enplegurako IV Lurralde Elkarrizketa

Hazkunderako eta Enplegurako IV. Lurralde Elkarrizketa egin zen, 2009ko otsailaren 11n, Eskualdeetako Komitearen egoitzan, Bruselan. Elkarrizketa hori lehen aldiz antolatu dute batera Europako Batzordeak eta Europar Batasuneko presidentziak. Europako eskualdeen eta erakundeen partaidetza dute lurralde-elkarrizketek, eta haien helburua da Europar Batasunak Hazkunderako eta Enplegurako duen Estrategian eskualdeek duten partaidetza handitzea (EB2020 Estrategia esaten zaio estrategia horri).

Europar Batasuneko presidenteorde Antonio TAJANI jauna eta Txekiar Errepublikako Europar Gaietarako Kanpo Idazkaria ohorezko gonbidatu izan ziren ekitaldi horretan. Bi gonbidatuek bereziki nabarmendu zuten, Hazkunde eta Enpleguko 2010 Estrategia eta Europar Batasuneko aurrekontuaren berrikuspenera hizpide hartuta, beharrezkoa dela epe motzean konpontzea auziak, baina, betiere, epe luzerako ikuspegi batekin.

Galdera-saio bat izan zen ekitaldian erabilitako metodologia, eta, saio horretan, eskualde eta toki-eremuetako arduradun politikoentzat gaurkotasunekoak eta garrantzi handikoak diren gaiak azertu ziren; besteak beste, arduradun horiek Lisboako Tratua aplikatzeko partaidetza handiagoa izan behar luketela, eta oraingoak baino mekanismo eraginkorragoak behar direla, Europako, estatueta, eskualdeetako eta tokiko gobernuen jardunak koordinatzeko, pizkunde-neurri zehatzak prestatzeko garaian.

10- Europako Talentu Gazteen Lehiaketa

2009. urtea “Sormenaren eta Berrikuntzaren urte europarra” izendatua izan ondoren, ‘Europako eskualde eta hiri sortzaileen foroa’ hartu zuen Bruselak apirilaren 20an eta 21ean. Europako Batzordeak eta Eskualdeetako Komiteak antolatu du foro hori, eta bere helburua da Europako eskualde eta hirien sormena erakustea eta sormenak eta berrikuntzak garapen ekonomikoa bultzatzeko duten garrantzia indartzea.

Europar Batasuneko 24 estatu kidek 267 izangai aurkeztu zituzten, eta, horietatik, 100 gazte "sortzaile eta talentudun" hautatu ziren topaketa horretan parte hartzeko. Gazte horien alor ugarian jarduten dute: artea eta kultura, zientzia, ikerketa eta berrikuntza, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, hiri-garapenen baitako sormena eta gizarte-berrikuntzak. Gazteek aukera izan zuten beren proposamen sortzaileak Ján FIGEL komisarioarekin, Europako arduradun politikoekin eta berrikuntzaren eta sormenaren alorreko 200 aditurekin eztabaidatzeko.

Euskadiko Josean MARTÍNEZ ALIJA eta Manu EGAÑA gazteak izan ziren sarituetako batzuk.

Bilboko Guggenheim museoko jatetxeko sukaldaria da Josean MARTÍNEZ ALIJA, eta, gaztea izan arren, ibilbide arrakastatsua egin du, sari ugari jaso baititu eta ospe handiko jatetxeetan lan egin baitu. Gainera, sukaldean etengabe aritzen da sormena lantzen. MARTÍNEZ ALIJAREN hitzetan, bere proposamenek “filosofia hau dute: aldaketa, probokazioa, sorpresa eta ezagunaren eta ezezagunaren arteko jolasa, solas berezi baten baitan”.

Antolamenduaren eta lidergoaren esparruko aditua da Manu EGAÑA, eta toki-garapeneko ekimenak egiten ditu, proposamen ekintzaile eta sortzaileak sustatuz. Manahmana izena du bere enpresak, eta, haren bidez, hainbat ekintza egiten ditu sektore publikoan eta herri-administrazioetan, sormen eta berrikuntza ekonomikoa eta soziala bultzatzeko. Gaur egun, Entropia izeneko proiektu berri batean ari da lanean, ikaskuntza bultzatzeko lanik gabe dauden pertsonen artean. Team Academy sareko kide da, eta sare horrek Euskadin dituen bi ekimenetan (Mondragón Team Factory eta Team Academy Euskadi) parte hartzen du.

11- Talde politikoak eta Espainiako delegazioa

Lau talde politikok dute ordezkaritza Eskualdeetako Komitean: Europako Alderdi Popularraren taldeak, Europako Alderdi Sozialistaren taldeak, Europako Demokraten eta Liberalen taldea, eta Nazioen Europaren aldeko eta Aliantza Europarraren taldea.

Eskualdeetako Komiteak 344 kide ditu; horietatik, %37,9 (130 kide) talde popularrekoak dira, %37 (127 kide) talde sozialistakoak dira, %13,7 (47 kide), demokrata eta liberalen taldekoak, eta %3,5 (12 kide) Nazioen Europaren aldeko taldekoak. Azkenik, 25 kide (%7,3), ez daude alderdi politikoren batera atxikiak, eta 2 kide (%0,6) izendapenaren zain daude (2009ko abenduko datuak dira).

Eusko Jaurlaritza, 2009ko maiatza bitartean, Europako Demokraten eta Liberalen talde politikoko kide zen, eta, geroztik, alderdi sozialista Jaurlaritzan sartu ostean, Europako Alderdi Sozialistako kide da.

Eskualdeetako Komitearen batzordeak bildu edo osoko bilkurak egun baino lehen, talde politikoetako kideak bildu egiten dira jarrera komunak izateko batzordean edo osoko bilkuran aztertuko diren gaietan. Topaketa horiez gain, aparteko bi bilera egiten dituzte Europako hirietan, talde politikoaren interesekoak diren gaiak eztabaidatzeko.

Estatuen delegazioak

Espainiako delegazioaren koordinazioa Gaztela Leonek egin du 2009an. Eskualdeetako Komiteko kide guztiak beren estatu-delegazioetan biltzen dira osoko bilkurak hasi aurretik, Komitean landuko diren gai buruzko informazioa trukatzeko.

Osoko bilkuren aurretik egindako bost bilera politikoetan izan da Eusko Jaurlaritza, bai eta Espainiako delegazioko kideei berariaz eragiten dieten gai buruzko informazio-eta koordinazio-bileretan ere. Horien artean, nabarmentzekoak dira 2010-2015 agintaldirako kide espainiarrek batzordeetan izango duten banaketa zehazteko bilera, Lisboako Tratua indarrean jarri ondoren kide espainiarrek Eskualdeetako Komitean izango dituzten aulkien kopurua aztertzea, edo Europar Batasunean Espainiak betetzeko zuten presidentzia-aldirako Eskualdeetako Komiteak editatutako liburuxkari zegokiona.

12- Open Days jardunaldiak

Europar Batasunaren eskualde-politikaren ekintza nabarmenena Open Days izenekoa da, eta, horien baitan, "Eskualde eta Hirien Aste Europarra" ekitaldiaren 7. edizioa egin zen Bruselan, 2009ko urriaren 5etik 8ra. Topaketa horren helburua izan zen eskualdeek eta hiriek gai ugari buruzko ideiak konpartitzea; esaterako, garapen ekonomikoaren sustapenari buruzkoak, atzeraldiaren aurkako borrokari buruzkoak edo klimaren aldaketak epe luzera dakartzan erronkei buruzkoak.

Ekitaldia Eskualdeetako Komiteak antolatzen du Europako Batzordeko Eskualde Politikako Zuzendaritzarekin batera, eta ekitaldi horretako kide dira 213 eskualde eta

hiri eta 30 enpresa-elkarte, banketxe eta erakunde. Europako eskualde- eta toki-administrazioetako nahiz sektore pribatuko 600 hizlari eta 6.000 parte-hartzailek parte hartu zuten 124 lantegi eta mintegietan. Bruselan egindako ekintza horiez guztiez gain, tokiko 230 jarduera egin ziren Europako herrialdeetan.

Open Days jardunaldien 2009ko edizioaren hasiera-ekitaldi instituzionala Eskualdeetako Komitearen osoko bilkuran egin zen, eta, bertan, Lehendakariak hitz egin zuen Europako erakundeen eta eskualdeen ordezkarien aurrean, debate-saio honen baitan: "Munduko krisia... erantzunak eskualdeetatik?". Saio horretan parte hartu zuten, halaber, Eskualdeetako Komiteko presidente Luc VAN DEN BRANDE jauna, Dresde hiriko alkate Helma Orosz andrea, eta Eskualde Politikako komisarioa, Pawel Samecki jauna.

Bosgarren urtez jarraian, eta Euskadik Bruselan duen delegazioaren koordinaziopean, Eusko Jaurlaritzak partaidetza handia izan du Open Days jardunaldietan; hala, hautatua izan da aukeratuak izan diren 25 eskualde-taldeetako baten baitan izan duen partaidetzarekin (100 eskualde-talde aurkeztu ziren, guztira). Zehazki, baterako lidergoa eraman du Ingalaterrako, Italiako, Portugaleko eta Holandako eskualdeek osatutako talde batean, eta, bertan, berrikuntzari eta sorkuntzari buruzko hitzaldiak egin dira.

Bruselan egindako bi mintegitan parte hartu du Eusko Jaurlaritzak eta mintegi bat antolatu du Euskadin. Innobasque agentziak, gizarte-berrikuntzako zuzendari LM ULLIBARRI jaunaren bidez, zenbait ekimen aurkeztu zituen Bruselan, berrikuntzaren balioak sustatzeko herritarren artean. Hori guztia "Gizarte-berrikuntza: hazkunde iraunkorrerako ideia sortzaileak konpartituz" izeneko mintegian egin zuen. Ekarpene horiek Europako jardun egoki moduan hautatuak izan ziren, berrikuntza eskualde-mailan sustatu eta bultzatzeko egiten duten ekarpenarengatik.

Horrez gain, SPRI agentziako berrikuntza-zuzendari Josu OCARIZ jauna hizlari izan zen Bruselan egindako beste mintegi honetan: "Tokiko berrikuntza eta ikerketa, lehiakortasunerako eta hazkunderako bitartekoa". Lantegi horren helburua izan zen erakustea subsidiariorotasun-printzipioa zaintzea eta aplikatzea egokia dela proiektu arrakastatsuak egiteko berrikuntzaren alorrean. OCARIZ jaunak nabarmendu zuen Europar Batasunak arauak eman behar dituela beharrezkoak diren kasuetan eta balio erantsia sor dezakeen kasuetan, baina ez duela halakorik egin behar eskualdea gauzak bere kabuz egiteko gai den kasuetan.

ONDORIOAK

Euskadik lan handia egiten du Eskualdeetako Komitean. Hasiera batean, Europako Erkidegoko araubidea aztertu du Euskadik, eta, zuzenketen eta beste tresna batzuen bidez, ahalegina egin du Europako arauak gero eta eraginkorragoak izan daitezen, eskualdeen eta toki-erakundeen berezitasunak aintzat har ditzaten. Lan hori egiteko, Eskualdeetako Komiteko talde politikoen eta Espainiako delegazioaren laguntza izan du.

Eskualdeetako Komiteak lanean jarraitu du Erkidegoko erakundeekiko harremanak estutzeko, eta, ildo horri jarraituz, bileretan parte hartzeko gonbidapenak egin dizkie eta gonbidapenak jaso izan ditu, irizpenen jarraipena egiteko modua hobetu du, eta erakunde horiekin egiazko elkarrizketa politikoa ezartzeko urratsak eman ditu. Hori guztia egin du bere sinesgarritasun politikoa, instituzioetan duen presentzia, ordezkari-tza-egitekoa eta inpaktu erreala handitzeko.

Gogoratu behar da Eskualdeetako Komitearen jarduerak testuinguru honetan eman direla 2009an: krisi ekonomiko globala bizi du munduak, Europak berrindartu egin du hazkunderako eta enplegurako estrategia, berriro egin dira Europako Parlamentuko eta Batzordeko kideak, eta Lisboako Tratatua martxan jarri da.

Erronka handi horiek aintzat hartuta, Europako Eskualdeen eta Hirien III. Goi Bilera antolatu zuen martxoan Eskualdeetako Komiteak, Txekiar Errepublikak Europar Batasunaren presidentzia zuen aldian. Eusko Legebiltzarren presidentea eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak izan ziren goi-bilera horretan. Goi-bilera horren helburua izan zen mezu politiko bat bidaltzea estatuburuei eta gobernuburuei, egoera ekonomiko eta politikoari aurre egiteko moduari buruz. Mezu horrekin adierazi nahi zitzairen eskualdeak subjektu aktibo eta beharrezkoak direla guztioi eragiten dizkiguten arazoak konpontzeko.

Goi-bilera horretan, halaber, Lisboako Estrategiaren (EB2020 estrategia) berritze-prozesuaren baitan, lehenengo kontsulta egin zitzairen eskualde eta udalerriei, hezkundea eta enplegua berpizteko moduari buruz. Kontsulta horretan ez ezik, Hazkunderari eta Enpleguari buruzko IV Lurralde Elkarrizketan parte hartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Azken ekitaldi hori Europako Batzordearen eta Txekiar Errepublikak Europako Batasunean zuen presidentziaren lankidetzaz antolatu zen, otsailean. Hilabete batzuk geroago, Susperraldi Ekonomikorako Europako Plangintzari buruz Eskualdeetako Komiteak egindako kontsultan parte hartu zuen Jaurlaritzak, plangintza hori baloratzeko eta EB2020 Estrategia diseinatzen laguntzeko.

Jarduera eta ekintza horien guztien artean, LÓPEZ Lehendakaria Belgikako hiriburura joan zen urrian, Europako goi-mailako ordezkari politikoekin eta Euskadiko enpresekin biltzeko, eta hitzaldi bat emateko munduko krisiari buruzko debate-saioan. Saio hori Eskualdeetako Komitearen osoko bilkuran egin zen, Open Days astearen hasierako ekitaldian.

Open Days edo Ate Irekien aste horretan, 3 mintegitan parte hartu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta, horietan, berrikuntzaren eta sorkuntzaren alorretan Euskadin egiten diren jardunbide onen adibideak aurkeztu zituen. Hain justu, 2009. urtea "Sorkuntzaren Europako Urtea" izanda, "Europako talentu gazteen" lehiaketa antolatu zuen Eskualdeetako Komiteak, eta, bertan, Euskadiko bi gazte izan ziren sarituak.

Krisi ekonomikoa bereziki jasaten duten sektoreen jardunari arreta berezia ematen dio Eusko Jaurlaritzak, eta, horren harian, partaidetza nabarmena izan zuen 2009ko urtarrilean autogintzaren sektoreko krisiari aurre egiteko eta babes-neurriak proposatzeko sortu zen berariazko taldeartean. Euskadin, autogintzaren sektoreak 70.000 pertsona baino gehiagori ematen die lana, eta BPGaren %17 sortzen du.

Lisboako Tratatuak bultzada berri bat eman die eskualdeei, eta ikuspegi politiko berriak zabaldu dizkie; izan ere, Europar Batasunaren helburutzat hartu du lurralde-koheretza eta orain arte ez zituen ahalmenak eman dizkie eskualdeei subsidiarotasunaren alorrean. Erkidegoak etorkizunean eman asmo dituen arauak izango duten lurralde-eragina aztertzeko Eskualdeetako Komiteak egin dituen kontsulta eta analisietan parte hartu du Eusko Jaurlaritzak, eta, horrez gain, Subsidiarotasunari buruzko Urteko Konferentzian izan da. Milan hirian antolatu zen konferentzia hori, Europako erakundeen lankidetzarekin.

Eusko Jaurlaritzak egiten duen lan horren guztiaren helburua da Europako politiketan eragitea, eta, ildo horretatik, gaiarekiko duen jarrera adierazten du eta Euskadin egiten diren jarduerak onak erakutsi. Finean, ekarpen bat egiten dio Erkidegoaren sare instituzional konplexuari, haren bidez eraikitzen eta osatzen baita Europa.

1) EUSKADI ETA ESQUALDEETAKO KOMITEAREN KONTSULTA-JARDUERA

Erkidegoko arauak aztertzeko lanean, hau da, Eskualdeetako Komitearen "kontsulta-jardueran" parte hartzen du Eusko Jaurlaritzak. Europako arau horiek ikusi ondoren Eusko Jaurlaritzak egin dituen zuzenketak adierazten ditu, laburtuta, ondorengo taulak:

| Urtea | Irizpen-kopurua | Sailei egindako iritzi-eskaerak | Jasotako erantzunak | Partaidetza-ehunekoa | Zuzenketadun iritzi-eskaeren ehunekoa | Jasotako zuzenketa-kopurua | Aurkeztutako zuzenketa-kopurua | Onartutako zuzenketa-ehunekoa |
|-------|-----------------|---------------------------------|---------------------|----------------------|---------------------------------------|----------------------------|--------------------------------|-------------------------------|
| 2009 | 46 | 52 | 45 | %80 | %38 | 53 | 35 | %89 |

1.1. Eusko Jaurlaritzaren parte hartzea

Eusko Jaurlaritzak, 2009. urtean, Eskualdeetako Komitearen 46 irizpen-proiektu aztertu ditu. Aurreko urtean baino irizpen gutxiago aztertu dira, 64 irizpen aztertu baitziren 2008an. Horren arrazoi nagusia izan da berritu egin direla Erkidegoko erakundeak eta Euskadin aldatu egin dela, 2009an, Jaurlaritzaren osaera.

Jaurlaritzako sailen erantzunari erreparatuta, esan behar da, guztira, 52 iritzi-eskaeretatik 45 erantzun jaso direla; hau da, parte-hartzea %80koa izan da.

1.2. Balorazioen kalitatea

Jasotako erantzunei erreparatuta, ikusten da zuzenketadun iritzi-ehunekoa zertxobait jaitsi dela, ehuneko hori, 2008an, %41ekoa izan baitzen, eta 2009an, berriz, %38koa izan baita. Horrenbestez, sailek aurreko urtean baino adostasun-kopuru handiagoa eman diete aztertutako irizpenei.

Jaurlaritzako sailek, 2009an, 53 zuzenketa idatzi dituzte eta aurreko urtean, berriz, 53 zuzenketa idatzi zituzten. Azkenik, 35 zuzenketa aurkeztu dira 2009an, eta, 2008an, berriz, 82 aurkeztu ziren.

Hala ere, 2009an, igo egin da onartutako zuzenketen kopurua; izan ere, aurkeztutako zuzenketen %89 onartu da, eta 2008. urtean, berriz, aurkeztutako zuzenketen %85 onartu zen. Horrenbestez, esan dezakegu Euskadik egindako zuzenketen onarpen-maila oso handia dela.

1.3. Irizpena jaso duten proiektuen tipologia

Eusko Jaurlaritzak gai ugari buruzko iritziak eman ditu irizpen-proiektu ugarian, eta zuzenketen bidez adierazi du bere jarrera. Eusko Jaurlaritzako sailei egin zaizkien eskaeren kopuruari erreparatuta, hauek izan dira eskaera-bolumen handieneko gaiak: garraioa, osasun publikoa, ingurumena, immigrazioa, Europaren integrazioa eta haren erakundeak, nekazaritza, gizarte-ongizatea eta eskualde-politika. Aurreko urtearekin, 2008arekin konparatuta, antzeko gai-kopuruetan eman dira irizpenak, 32 gai izan baitziren 2008an eta 29 izan baitira 2009an.

1.4. Beste eskualde batzuk egindako zuzenketei emandako babesa

Zuzenketak egiteaz gain, beste eskualde batzuk egindako 123 zuzenketa babestu eta batera aurkeztu ditu; batik bat, beste autonomia-erkidego batzuek egindakoak

eta Europako Talde Sozialistak eta Europako Demokratik eta Liberalen Taldeak zuzendutako eskualde eta udalerriek egindakoak. Gogoratu behar da, zuzenketa aurkezteko, zuzenketa egin duen kidearen sinaduraz gain, Eskualdeetako Komiteko kideen gutxienez 5 sinadura gehiago behar direla.

Aurrez adierazitako ildoari jarraituz, 2009an jaitzi egin da beste eskualde batzuetatik jasotako zuzenketa kopurua eta Euskadik babestutakoak —hau da, beste eskualde batzuekin batera aurkeztutakoak—, aurreko urtearekiko. Izan ere, 396 zuzenketa jaso eta 208 babestu ziren 2008. urtean, eta 2009. urtean, berriz, 256 jaso dira eta 123 babestu. Aurkeztutako, eta, ondorioz, babestutako zuzenketa kopurua jaitzi bada ere, lan handia egin da, beste eskualde batzuekin batera, zuzenketa aurkezteko, eta agerikoa lan hori guztia egitea beste baliabide edo tresna bat dela Euskadi presente izan dadin Europan eta esparru horretan gure interesak babesteko.

1.5. Galdetegi espezifikoak betetzea.

Irizpenen kalitatea hobetzeko, gai hauetan izandako esperientzia praktikoak aurkeztu zituen Eusko Jaurlaritzak:

- Lisboako Estrategiaren etorkizunari buruz Eskualdeetako Kontseiluak egindako kontsulta (EB 2020 Estrategia).
- Europako Ekonomikoa Suspertzeko Planari buruzko Eskualdeetako Kontseiluak egindako kontsulta.

1.6. Subsidiarotasunaren azterketa

Lisboako Tratatuak ematen dizkion eskumen berriak hartzeko prestatzeko, Subsidiarotasun Printzipioaren aplikazioari buruzko Urteko Konferentzian parte hartu zuen Eusko Jaurlaritzak (2009ko maiatzaren 8an egin zen Konferentzia, Milanen).

Horrez gain, Eskualdeetako Komiteak proba-pilotu hauek antolatu ditu, subsidiarotasun-printzipioaren eta proportzionaltasun printzipioaren betetze-maila aztertzeko:

- Subsidiarotasun-printzipioaren eta proportzionaltasun-printzipioaren betetze-mailari buruzko kontsulta espezifikoa, Batzordearen “EBn Biohondakinak kudeatzeko Liburu Berdea” hizpide hartuta (2008. urtea, 811 amaierakoa)
- EBk gerora ados dezakeen “Osasun-arloko desberdintasunak murrizteko erkidego-ekintzaren” inpaktu-azterketari buruzko kontsulta

- “Ur edangarriari buruzko zuzentaruaren (98/83/EE zuzentarua) berrikuspenaren” inpaktu-azterketari buruzko kontsulta

2) BESTE JARDUERA BATZUK

2.1. Lehendakariak 2009ko urriaren 5ean Bruselara egindako bisita

- Hizlari izan zen Eskualdeetako Komitearen osoko bilkuran, Open Days astearen inaugurazio-ekitaldian
- Europako Batzordeko presidente José Manuel BARROSO jaunarekin bildu zen, ETaren aurkako borrokaz eta Euskadiko atun-ontziek Indiako ozeanoan izango duten babesari buruz hitz egiteko.
- Ekonomia-gaietarako komisario europar Joaquín ALMUNIA jaunarekin bildu zen, ekonomia- eta finantza-krisiari aurre egiteko konponbide berriak bilatzeko.
- Euskadiko enpresekin bildu zen, internazionalizazioaren garrantzia azpimarratzeko.
- Bruselan finkatutako euskaldunak hartu zituen.

2.2. Europako Eskualdeen eta Hirien Goi Bilera, 2009ko martxoaren 5ean eta 6an

- Etorkizuneko erronkekiko eskualdeek eta hiriek duten ikuspegia azaltzea izan zen goi-bileraren helburua. Hazkundearen eta enpleguaren suspertzeari buruzko lehen kontsulta egin zitzairen eskualde eta hiriei, etorkizuneko EB2020 Estrategia diseinatzeko hasteko.
- Goi-bilerako buru izan ziren Eskualdeetako Komiteko presidente Luc VAN DEN BRANDE jauna, Txekiar Errepublikako lehen ministro eta, garai horretan, EBko Kontseiluko presidente Marek TOPOLÁNEK jauna, eta Europako Batzordeko presidente José Manuel BARROSO jauna.

2.3. “Autogintzaren krisia” eskualdeen arteko taldea, 2009ko urtarrilean sortua

- Britainiako presidentea da taldeko burua, eta Europako ehun bat eskualde eta hirik osatzen dute. Euskadi da taldeko kideetako bat, eta taldearen xedea da autogintzaren sektorea babesteko neurriak eta tresnak proposatzea.
- Urtean dozena bat aldiz bildu da taldearte hau, eta mintegiak eta topaketak antolatu ditu Erkidegoko erakundearen goi-mailako ordezkariekin.

2.4. Hazkunderari eta Enpleguari buruzko IV Lurralde Elkarrizketa (2009ko otsailak 11)

- Lurralde-elkarrizketaren helburua izan zen eskualdeek duten partaidetza indartzea, Europar Batasunaren Hazkunderako eta Enplegurako Estrategia (EB2020 Estrategia) inplementatzeko prozesuan.
- Ekitaldian izan ziren Europar Batasuneko presidenteorde Antonio TAJANI jauna eta Europar Gaietarako Txekiar Errepublikako estatu-idazkari Marek MORA jauna.

2.5. Europako Talentu Gazteen lehiaketa (2009ko apirilak 20 eta 21)

- Foroaren eta lehiaketaren helburua izan zen Europako eskualde eta hirietako sormen-adierazpenak erakustea, Europako 100 gazte-talentu hautatzea, eta sorkuntzak eta berrikuntzak ekonomiaren garapenerako duen garrantzia indartzea.
- Ján FIGEL komisarioak, Europako arduradun politikoak eta berrikuntzaren eta sorkuntzaren alorreko 200 adituk parte hartu zuten ekitaldian.
- Euskadiko Josean MARTÍNEZ ALIJA eta Manu EGAÑA gazteak sarituak izan ziren.

2.6. OPEN DAYS jardunaldiak (2009ko urriak 5-8)

- Ate irekien jardunaldi horien helburua izan zen eskualdeek eta hiriek gai hauei buruzko ideiak konpartitzea: berrikuntza eta hazkundera, klima-aldaketa, lurralde-lankidetzeta eta mugaz gaindikoa, eta kohesio-politika.
- “Gizarte-berrikuntza: hazkunde iraunkorrerako ideia sortzaileak konpartituz” izeneko mintegian parte hartu zuen Innobasque agentziako gizarte-berrikuntzako zuzendari LM ULLIBARRI jaunak.
- SPRI agentziako berrikuntza-zuzendari Josu OCARIZ jauna hizlari izan zen Bruselan egindako “Tokiko berrikuntza eta ikerketa, lehiakortasunerako eta hazkunderako bitartekoa” mintegian.
- Horrez gain, berrikuntzari buruzko beste mintegi bat antolatu zen Euskadi.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior